

# uk

183. zenbakia / 2010eko urriaren 18a







Atzeko jesarlekua  
estreinatu  
aurretik...

# Praktika ezazu!

Hemen dituzu  
gidabaimena euskaraz  
ateratzen lagunduko dizuten  
**Uribe Kostako autoeskolak:**

## ERANDIO

- GAZTEDI AUTOESKOLA  
• Trabudu kalea, 3 T. 94 467 39 33
- ERANDIO AUTOESKOLA  
• Ibarra kalea, 10 T. 94 467 21 09
- ALTZAGA AUTOESKOLA  
• San Jeronimo kalea, 16 T. 94 655 84 44
- ARIAS AUTOESKOLA  
• Fundacion Jado kalea, 19 T. 94 467 10 35
- ASTRABUDUA AUTOESKOLA  
• Consulado de Bilbao kalea, 9 T. 94 467 54 98

## GETXO

- ALGORTA AUTOESKOLA  
• Andres Cortina kalea, 6 T. 94 460 94 43
- AMEZTI AUTOESKOLA  
• Amezti kalea, 9 T. 94 491 09 15
- ARIAS AUTOESKOLA  
• Mesedeetako kalea, 26 T. 94 463 88 57
- Bidezabal kalea, 14 T. 94 430 11 44
- Gobelsurre kalea, 13 T. 94 463 00 19
- GETXO AUTOESKOLA  
• Salsidu kalea, 20 T. 94 430 25 71
- PRECIADO AUTOESKOLA  
• Makaleta etor. 83 T. 651 961 901
- SAN INAZIO AUTOESKOLA  
• Telletxe kalea, 13 T. 94 460 00 45
- URIBE KOSTA AUTOESKOLA  
• Urkiola kalea, 4 T. 94 430 06 05

## URIBE KOSTA

- PLENTZIA
- URIBE KOSTA AUTOESKOLA  
• Portaleta kalea, 11 T. 94 677 02 06
- SOPELA
- KAIKU AUTOESKOLA  
• Sipiri kalea, 4 T. 94 676 70 71
- SOPELANA AUTOESKOLA  
• Sertutxa kalea, 6 T. 94 676 03 40
- URIBE KOSTA AUTOESKOLA  
• Laubide kalea, 2 T. 94 676 48 39
- URDULIZ
- KAIKU AUTOESKOLA  
• Gobela kalea, 3 T. 94 676 68 66

Azterketa teorikoa euskaraz egiten duten gazteei:  
• **klase praktiko bat doan!**  
• **Europar zehar ibiltzeko interrail bidai baten zozketan parte hartzeko aukera**


Gidabaimena  
euskaraz

L



## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte  
HELBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO  
e-mail: uk@dizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37  
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan  
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Zuberoa Iturburu, Maitane Nerekan  
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka  
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega  
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte  
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel  
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)  
AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru  
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00  
ISSN: 1576-6799  
© Boluntzarreta



### ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK


TRATU TXARREN BIKTAK ARITZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

## Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Bizkaiko Bertso Txapelketa, aurkezpena.
- LEHEN ETA ORAIN. Zugatzarte etorbidea.
- TALAI. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Fakundo Aznarez.
- HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- AGENDA.

### SAKONEAN

- ALBUMA. Gobela ibaia.
- ARGAZKIA. Udondo erreko zubia.
- BERBETAN. Ramiro Lizondo.
- FOTOGRAFIA. Herri xilean, Jon Cazenave.

### KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Hasi da zine denboraldia.
- MUSIKA. Josu Doncel bakarlarri algortarra.
- LIBURUAK. Euskal Herriko Mitologia liburua eta DVDa. Erreseinak.
- KIROLAK. Jose Felix Hormaetxe.
- ELKARRIZKETA. Jon Cazenave argazkilaria.

### AMAITZEKO

- NORA JOAN. Triangu, Sopelana.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Leioztarrak Arraten, 1963.
- AITORMENAK. Dani Arizala.

Azala: Jon Cazenave

[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz)



30 Ramiro Lizondo

### Berbetan

Boliviako Nazio Askotako Estatuaren Gobernua kardugun den ekonomilariagaz egin dugu berbetan



11 Fakundo Aznarez



54 Dani Arizala



## Leioa Berri Auto

- ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra
- Autokarabanak

HARTU TXANDA ONLINE - CITA ONLINE

[WWW.RENAULTLEIOA.COM](http://WWW.RENAULTLEIOA.COM)



**Leihatila**

&gt; Aiala Elorrieta

**Hegiak**

Gure eskualdean bada, irakurzaleen txokoa delakoa, aldiro, guri, irakurleoi, idazleakaz egoteko parada ematen diguna. Orain, Bartzelonan nagoenez, hileroko zita hauetara huts egiten dut, penaz. Baina hemendik ere, inoiz izan dut aukera zenbait euskal idazlerengana hurbiltzeko, ekitaldi ezberdinetan, Unai Elorriaga eta Kimen Uriberengana, adibidez. Aste honetan bertan, kasualitatez jakin dut, Imanol Murua kazetariak bere azken liburua aurkeztu behar zuela. Loiolako Hegiak. Hitzaldira bidean, kasualitatez, hara non, beragaz topo egin nuen, Plaça Catalunya ondoan. Zu al zara?! Esan nion, eta elkarregaz egin genuen Kazetarien Eskolarako bidea. Liburua lagun batek gomendatu zidala kontatu nion, eta Bilbo-Bartzelona trenaz egin nuen batean, liburuagaz hasi nintzela. Hasi eta berehala harrapatu ninduela. Loiolako prozesua izan zena azaltzen du liburuan Otegi-Urkullu-Egiguren hirukoaren solasaldiak kateatuz. Lan oso sendoa da, ikuspegi zabala eskaintzen duena, eta norberari, hausnarketa bideak irekitzen dizkiona. Kasualitatez jakin nuen hitzaldia eman behar zuela, kasualitatez topatu nuen kalean, eta kasualitatez, liburua, eszenatoki politiko barri honetan iritsi zaigu. Izenburuaren h horrek despistatu egiten gaitu, hitz joko ederra da, baina. Ia oraingoan ez garen “ertzean” geratzen, eta hegiak egia egiten diren.

**gu geu****Galderatxoak erantzuteko prest**

Telefonoak jo eta hartu duzu. Ahots goxo batek bere burua aurkeztu eta UK aldizkariaren izenean egin dizu berba. Inkestatzo bat erantzuteko eskatu ere. Lan egun gogorra izan duzu eta alaba kexaka dago askariko platanoren orde z txokolate palmera gurago duelako. Hala ere, galderak erantzuteko prest agertu zara. Telefonoa eseki eta sofán jarri zara, emandako erantzunak nora joango diren zeure buruari galdetuz.

Zure iritzia ezagutzeko kanpainatxo egin dugu irailean. Batzuk gustu handiz erantzun dituzue gure galderak; besteek aldiz, “si no hablamos en castellano, vamos mal” edo “ya no tengo nada que ver con las cosas del euskera” bezalako esaldiak bota eta telefonoa eseki duzue. Batzuek, lore ederrak bota dizkiguzue, aldizkari argazkiak zein ederrak diren behin eta barriz errepikatuz; besteek, kritika zorrotzak egin dituzue, aldizkariaren edukiek zein gaiak lantzeko modua herriaren beharrei erantzuten ez dietela edo instituzionalegiak direla argudiatuz. Batzuei zein besteei, eskerrik asko!

Orain, gure txanda heldu da. Esandako guztiak bildu, aztertu eta zuon iritziak non eta zelan islatu behar diren asmatu behar dugu. Ez da lan makala izango; agian, ez dugu asmatuko. Baina ahaleginginduko gara, horretan dudarik ez eduki. Esandakoak ezin dira airean lotu.

**UK-ko lantaldea****Iritzia**

**Jon Etxebarria** algortarrak, urrian Askapenaren kontra burututako sarekada polizialaren inguruko hausnarketa luzatu digu.

**Internazionalismoa aurrera!**

Oraingoan espainiar gobernua mugimendu internazionalistaren aurka jo du. Gudari Egunaren biharamunean, Espainiar Polizia Nazionalak burutako polizia operazioa izan zen zorritzarrez albiste, eta ez askatasunaren alde dena eman dutenei

**«Askapenaren aurkako operazio hori borrokan dauden beste herrien kontrako eraso ere bada»**

dituena, Algortako bertsolaria, kolore askotako ekimenetako txistularia, aita, bikotekide, seme eta laguna. Zergatik? Internazionalismoa lantzeagatik.

Askapenaren aurka eta euskal mugimendu internazionalistaren aurkako sarekada hori kriminalizazio kanpaina luzearen ondoren etorri da. Espainiar klase menderatzaileen hedabideek abiarazi zuten kanpaina hori orain urte batzuk, Aska-

egindako omenaldiak eta ekimenak. 7 atxilotu eta 5 espetxeratu; gurean, Gabi eroan digute, euskal internazionalista, Uribe Kostako hamaika lagun euskaldundu

penako brigadistak hainbat lekutatik kanporatu dituzte azken 5 urtean, eta heriotza mehatxuren bat ere jaso izan dute.

Beraz, lan internazionalistaren aurkako erasoak ez dira berriak, baina azkena latzena izan da. Batetik, gure herrian zabalitzen ari den prozesua zapuztea bilatu dute eraso honeguz, alde batetik, ezker abertzalean kontraesanak areagotu gura dituzte; ugalduta eta sendotu den Euskal Herriarekiko elkartasuna geldiarazi gura dute. Bestetik, euskal askapen nazional eta sozialerako oinarria den herri mugimenduaren aurka ere egin dute. Baina hori bakarrik ez, Askapenaren aurkako operazio hori borrokan dauden beste herrien kontrako eraso ere bada.

Izan ere, Askapenak sorreratik gaurdaino lan publiko eta agerikoa burutu du eta burutzen jarraituko du herri arteko elkartasunean. 23 urte luze hauetan, munduko herrien borroka gertutik ezagutu, Euskal Herrian zabaldu eta salatzeaz gain, alderantzizko norabidean, elkartasuna bilatu izan du, gure herriak bizi duen egoera ezagutarazi eta urtebidea emateko bultzadan. Asko izan zarete, 2000 brigadista inguru, Nikaragua Sandinistatik hasi eta Kuba, Mexiko, Venezuela, Kolonbia, Bolivia, Ekuador, Panama, El Salvador, Argentina, Uruguay, Maputxe herria, Palestina, Herrialde Katalanak, Irlanda, Sardinia, Eskozia eta gainerako herrialdeetan bertatik bertara izan zareten euskal internazionalistak. Horrez gain, ehunka lagun eta ordezkari izan dira gure lurretan ageriko manipulazioetatik kanpo, gure errealitatea ezagutzera heldu direnak.

Internazionalismoa horixe da eta, oztopoak oztopo, internazionalismoak aurrera jarraituko du, hispanitatearen testuinguruan “Herriok independentzia” lelopean egindako ekimenak eta Internazionalista Eguna dira adibide bikaina, apaltasunez baina tinko, hamaika herri garelako eta borroka bakarra dugulako.

**Jon Etxebarria**  
(Askapenako kidea)



2010eko URRAREN 7A, MENDIBILE LEIOA

**Bizkaiko onenak plazan/** “Plazan alkartuko” dira aurten Bizkaiko Bertsolari Txapelketako izarrak. Bost kanporaketa eta hiru finalurreko abenduaren 18an BECen egingo den final handira heltzeko. Uribe Kostatik uzta ederra bidali digu: Jone, Beñat, Peru, Arrate, Inxaso, Joanes eta Fredi. Xabi Paia urrunetik jarraituko ditu aurten txapelketaren gorabeherak; hala ere, mikrofono aurrekoek baino gehiago sufrituko du ziur asko. Leioako Mendibile jauregian egin zuten aurkezpena, ardo artean eta bertan egin genuen familia argazkia; txakolinak lagunduta errazago urteten al dira bertsoak? O / Argazkia: Asier Mentxaka



GETXO EUSKALDUNTZEKO HITZARMENA

# GEHITU KIROLA

WWW.GETXO.NET/GEHITU/ webgunean Getxoko kirol elkarteei buruzko argibideak aurkituko dituzu: harremanetarako datuak, entrenamenduak, euskararen aldeko lana... Ikastetxeek eskaintzen dituztenak ere laster jarriko ditugu.

**KIROLA EUSKARAZ GIDA**  
www.getxo.net/gehitu/webgunean

Getxo Getxo EUSKALDUNTERA BIA 3175



### Iraganez doa denbora\* beti / ZUGATZARTE ETORBIDEA

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



## uribitakora > langileen auzoa



2010eko martxoa

Testua: **Nahikari Ayo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

\* Doinua: Hamalau heriotzera

Langileen auzoa izan da Lamiako, bertan lan egin dabe hango (e)ta bertako. Han aberastu dira enpresario\_asko, ta galera etorri da orain auzorako, fabrikak bota dabez onena zalako...

Lamiakotik ezin zan Sestao ikusi, fabrikak zirelako denean nagusi, baina hoiak guztiak dituzte erauzi. Orain guztiontzako mitoa da jausi, eder bihurtu dabe lehen zana itsusi.

Ibaizabal aldean industria eskasia, aspaldian heldu zan bertara krisia. Labe garaiei esker han bazan bizia, orain ACB dogu bertako hazia, Ezkerraldea dogu aldatzen hasia.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal iezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)

**Garaizar**  
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 945 430 82 42 / 945 882 997 • [registro.bizkaia.net](http://registro.bizkaia.net)  
1800 katea • ALGORTA

**Uribefm**  
107.8  
Gaitz Inazio



**Taberna Berri**

Sarrikobasa 4 -ALGORTA  
Tf. 94 430 64 93

## genero indarkeria > beldur barik bizitzeko lehiaketa



Informazio gehiago: 94 466 01 36 edo [www.beldurbarik.com](http://www.beldurbarik.com)

**Artea** eta generoen arteko berdintasuna batu gura ditu *Adieraz Zaitetz Beldur barik*. Asko esateko *duzulako* lehiaketak. Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Udalerrien Sareak. Ekimenaren bidez kontuan hartu eta bultzatu gura dituzte “*emakumeenganako indarkeria era zuzenean edo zeharka arbuiatzen dituzten adierazpen artistikoak eta sortzaileak*” eta hausnarketa sakona egin gura dute “*emakumeek jasaten duten indarkeriari buruz*”. Bakarka zein taldeka, 16 eta 26 urte bitarteko gazteek parte har dezakete, eta edozein adierazpen artistiko aurkeztu: animazioa, arte digitala, argazkia, dantza, bideoa, musika, zine-lana, eskultura, pintura e.a. Urriaren 30era arte daukate tartea lanak Getxoko Berdintasun Zerbitzura eroateko. Hiru sari emango dituzte, 1.000 eurokoa bakoitza. Lanak Beldur Barik Jaialdian erakutsi ahalgo dituzte, azaroaren 27an. ○

## plentzia > esaera zaharrak Plentzia Telebistan



Sopelako Esaera Zaharren Txapelketako irudi bat

**Irailaren 25ean** egin zuten Plentzian I.go Esaera Zaharren Txapelketa. Jende askok parte hartu zuen eta giro oso jatorra sortu zen herrian. Dagoeneko datorren urteari begira jarri dira antolatzaileak bigarren lehiaketa prestatzeko asmoz. Bide horretan, Plentzia Telebistan lehiaketa ezagutzera ematea otu zaie: jolasa egingo dute txapelketaren eguneko irudiak baliatuz. Horrela, ikusleek txapelketa ezagutuko dute eta esaera zaharrak ikasiko dituzte. Irudietan agertuko dira bertsolariak eta bertsoa botako dute; jarraian, hiru aukera emango diote ikusleari, zein esaera zaharrez ari diren asma dezaten. Ondoren, taldeen benetako erantzunak jarriko dituzte, emaitza eman dezaten. Urriaren 22ra arte, barikua, ikusi ahalgo da jolasa; egunean hainbat alditan eskainiko dute. ○

**saiazgetaria**



HOTELA

Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa



...hamia

...lehengo garaiak...

...itsasoa

[www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com) / [info@siazgetaria.com](mailto:info@siazgetaria.com) / Tf. (+34) 943 140 143



## gabi basañez > UK aldizkariko laguntzaile eta ALBEko kide



ALBE Algortako Bertsolari Eskolako kide da Gabi Basañez

**Joan den** hilaren 28an atxilotu zuten Gabi Basañez sopoloztarra eta Askapenako beste sei lagun espainiar poliziek; horietatik bost espetxeratu zituen Madrilgo Entzutegi Nazionalako epaileak, Basañez tarteko. UK aldizkariko laguntzaile dugu sopoloztarra, hainbat iritzi artikulu argitaratu ditu aldizkarian eta laguntzeko prest agertu zaigu beti; horregatik helarazi gura diogu gure elkartasuna berari, zein senide eta lagunei. Basañez euskalgintzan aritu da urte askoan eta ALBE Algortako Bertsolari Eskolako kide da; Elkarateak ere elkartasuna adierazi dio bertsolari eta musikariari. ALBEk azpimarratu du “*Gabik bertsolari eskolan zein euskalgintzako elkarte ugaritan bertsolaritzaren eta euskararen alde egindako lan nekaezina*”, eta “*besarkadarik beroena eta elkartasun osoa*” helarazi die haren senideei. Basañez atxilotuta zegoen bitartean kaleratu zuen oharra ALBEk eta kezka ere azaldu zuen atxilotuta zegoen bitartean “*jaso lezakeen*” tratuari buruz. ○

## getxo > filipinei buruzko jardunaldiak urriaren 31ra arte



Good bye, America filma emango dute urriaren 27an

**Toki urruna** dira Filipina uharteak, baina orain badaukagu aukera hobeto ezagutzeko. Algortako kultur etxean izango dira Filipinei buruzko jardunaldiak urriaren 31ra arte. Hainbat ekimen egongo da, lehena izango da erakusketa eta inmigrart-en eskulangintza tailerretan egindako lanak erakutsiko dituzte; Harresiak Apurtuz eta Sikap elkarteek antolatu dute. Urriaren 20an abiatuko dute Zineforuma, hiru film eskainiko dituzte: *Daybreak* emango dute 20an, *El Masajista* 25ean eta *Goodbye, America* 27an. Guztiak izango dira 19:00etan eta doan. Mahai-ingurua ere egingo dute hilaren 28an, 19:00etan. Areetara ere hurbilduko dira eta ekimenak prestatu dituzte urriaren 24rako: tailerrak, Filipinetako dantzak, karaokea, jaki dastaketa e.a. ○

[erretratua]



“Euskara, gizartea ezagutzeko altxorra izan da, zutik mantentzeko flotagailua”

## Fakundo Aznarez > Uribe Kostako Berbalagunen koordinatzailea

**Euskal Herrian** bizi gura zuen; argi zuen hori Fakundo Aznarezek (Buenos Aires, Argentina, 1972). 1999an heldu zen Berangora, aitaren etxera: “*Banuen Euskal Herriaren barri; Egin irakurtzen nuen Madrilan kontzertuen eta gertatzen zenaren barri izateko*”. Asko aldatu da Berango ordutik: “*Ezagutu nuen Berangok ez zuen metrarik, ez txaletik; erraza zen etxea alokatzea*”. Doinu berezia oparitu zion argentinarrak euskarari; bazekien hizkuntza ezinbestekoa zela herriaren parte izateko: “*Madrilen hasi nintzen euskara ikasten*”. Euskal jendartearen murgiltzeko lehenengo egun gogorretan, hizkuntza izan zuen borrokarako arma: “*Euskaldunon kode sentimentalak oso ezberdinak dira; gizartea zelan mugitzen den ulertzea ez da erraza. Euskara, gizartea ezagutzeko altxorra izan da, zutik mantentzeko flotagailua*”. Sustraiak botatzeko lurra aurkitu du gurean: “*Seme-alabak hezteko tokia*”. Hizkuntzagaz batera, irratia izan du bigarren pasio; Koska, Bilbo Hiria eta Euskadi Irratian husten ditu barrenak. Joan den urtetik, Uribe Kostako Berbalagunak koordinatzen dabil: “*Beti izan naiz berbalaguna; egitasmoaren filosofia bat dator nire bizimoduagaz*”. Euskara “*kutsatzen*” saiatzen da: “*Erdal munduetan euskaraz egiten dudanean konturatzen naiz zein garrantzitsua den euskara ahoan izatea. Denok gara berbalagun, konturatu barik; egun osoko berbalagunak izatea da erronka!*”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrek + scanner &amp; txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Plentzia, 6.  
T 94 464 90 87  
E areeta@cianoplan.es

**cianoplan**  
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763  
www.cianoplan.es



# Historian barna, ondarean

Ondarearen Europako Jardunaldiak hil hasieran heldu ziren gurera; **urria amaitu arte** lau ekintza programatu dituzte: **ibilaldiak, bisita gidatuak, erakusketa eta hitzaldiak**

“Bizkaia, sartu zure historian” leloa aukeratu du Foru Aldundiko Kultura Sailak aurtengo Europako Ondare Jardunaldietarako. Getxok ekimenagaz bat egin du laugarren urtez eta herritarrei “*historian barna*” sartzeko gonbitea egingo die urriaren 31ra arte. Lau ekintza antolatu dituzte.

**Dagoeneko martxan dira** Ondarearen Europako Jardunaldiak Getxon. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Ondare Historikoaren Zerbitzuak antolatzen duen ekimenagaz bat egin du Udalak eta Turismo Bulegoak laugarren urtez. Urria osoan parte hartu ahal izango da antolatutako ekintzetan. Jardunaldiakaz, hiru helburu bete gura dituzte: “*Getxoko Ondare Kulturala hainbat ekimenen bitartez, herritarren artean hedatzea; kalitatezko esperientziaren bidez, gure ondarea gozatzera, ezagutzera eta errespetatzea; eta ondare ingurumena kontserbatzeko estrategietan sartzera*”. Foru Aldundiak aldiz “*ondarearen zergati horretara hurbildu*” eta “*beraren lehen protagonista nagusiarengana hurreratu*” gura du.

Lau ekintza antolatu dituzte Getxoko Jardunaldietarako, guztiak doan. Alde batetik, “*Getxoko ondarea bere historiaren ispilu*” leloagaz, ibilbideak autobusez egingo dira, Udalerriko etxe, eliza eta basiliza esanguratsuenak hobeto ezagutzeko. Ordu bikoak izango dira ibilaldiak eta Ereagako Turismo Bulegotik urtengo dira.



Getxoko hilerritik bisita gidatuak egingo dituzte bariku eta domekatarik

Getxoko hilerrian ere badago zer ikasi; horregatik, urriko bariku eta domekatarik bisita gidatuak egingo dituzte arrastiko 18:00etan. Hilerriko sarreratik urten eta 25 laguneko taldeetan 90 minutuko

**«Getxoko hilerritik 90 minutuko bisita gidatuak egingo ari dira urriko bariku eta domekatarik»**

bisita egiteko aukera ematen dute. Bisitak dirauen bitartean ezin dira argazkiak atera.

Hilaren 26a arte, Jose Ignacio Churrucaren maketak ikusgai egingo dira Aixerrotan. Getxoko ondare arkitektoniko eraikin adierazgarrienetako batzuk eskala txikian ikusteko aukera ematen du

erakusketak. Egunero egongo da zabalik, 13:30etik 00:00era (eguztzen eta domekatarik 17:30ean itxiko dute aretoa).

Azkenik Jose Mari Beascochea EHUko Geografia eta Historiako doktoreak hitzaldi bi emango ditu Jardunaldien barruan. Lehena, Ondare zibilari buruzkoa, urriaren 7an eman zuen. 28an ostera, ondare erlijiosoari buruz egingo du berba, 19:00etan Ama Mesedeetako elizako kaperan. Berbalditxoa 90 minutu ingurukoa izango da eta ez da gonbidapenik beharko sartu ahal izateko.

Aipatutako jardueretan parte hartzeko (hitzaldian izan ezik) nahitaezkoa da alde aurretik erreserba egitea Turismo Bulegoan.

Informazio gehiago: 94 491 08 00 / [www.getxo.net/turismo](http://www.getxo.net/turismo)

## Garbigunea auzoz auzo

Garbigune mugikorra herrian zehar asteburuetan



Andra Mariko kiroldegian pilak batzeko edukiontzia jarri dute

**Birziklatzea** errazago egingo duten tresna bi martxan jarri ditu Udalak urrian.

Alde batetik, asteburuetan etxean sortutako hondakin aleak tamaina handiko edukiontzietan biltzen lagunduko duen Garbigune mugikorra auzoz auzo bidaiatzen hasi zen urriaren 1ean. Hondakin toxikoak zein orain arte birziklatzen ez ziren beste hondakin batzuk bota daitezke Garbigune mugikorrean: olioak, pintura, laka, berniz hondarrak, fluoreszente eta lanparak, iraungitako sendagaiak, hondakin elektronikoak, disolbatzaileak, hidrokarburo hondakinak, toner/tinta kartutxoak, CDak, elektrotresna txikiak e.a. Edukiontzia ibilgailu batean garraiatzen dute auzo batetik bestera; batutako hondakinak Garbigunera eroaten dituzte gauean. Emaus Elkarte Kooperatiboko

herriko lagun bik kudeatzen dute zerbitzua. Bariku arrastietan Areetako Geltoki plazan dago, zapatu goizetan Algortako Geltoki plazan, zapatu arrastietan Bidezabalgo anbulategiko plazan eta domeka goizean Villamonteko Iturgitxian perkean.

Bestalde, erabilitako pilak eta eskuko telefonoen bateriak jasotzeko edukiontzia jarri dituzte herrian zehar. Honako lekuetan aurki daitezke: Andra Mariko kiroldegia, Errementariena kalea, Trinitatea eta San Martin kaleen arteko bidegurutzea, Bidezabalgo osasun zentroa, Kasune kalea, Alangoko osasun zentroa, Fadura, Neguriko Metro geltokia, Villa de Plentzia kalea, Ezekiel Agirre kalea, Gagnetza plaza, Areetako Geltoki plaza, Paulino Mendibil eta Santa Ana plazak. ○

## HIPERAKTIBITATEARI BURUZKO BIDEO-JOKOA

AHIDA hiperaktibitatea eta arreta defizita pairatzen duten pertsonen senideen elkarteak, gaixotasunari buruzko informazioa zabaltzeko bideo-jolasa kaleratu barri du. Familia eta irakasleentzat lagungarria den baliabidea sortu gura izan dute AHIDAKO kideek, 750 galdera eta erantzunez osatutako jolasagaz. Defizita zelari ezagutu edo gaixotasunaren inguruan sortutako mitoak lantzen dira, besteak beste. Elkarteak jolasaren 500 ale kaleratu ditu eta interesa agertzen duten ikastetxe eta elkarteetako kideen artean banatuko ditu.

Informazio gehiago: [www.ahida.es](http://www.ahida.es)

## DANTZA IKASTAROAK BIZKAI ELKARTETIK

2009an sortutako BIZKAI GETXO irabazi asmorik bako folklore elkarteak, euskal dantza ikastaroak antolatu ditu 2010-2011 ikasturterako. “*Kultura tradizionala zaintzea, bultzatzea eta zabaltzea*” da elkartearen helburua, indar berezia eginez euskal kulturari. Ikastaroak San Nikolas Ikastolan egingo dira urriaren 19tik aurrera; eskolak, martitzen eta eguenean izango dira 19:15ean lehenengo txanda eta 20:30ean bigarrena. 15 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute eta ez da beharrezkoa dantza-ezagutzarik izatea aurretik. Jota, arin-arin, dantza-jauziak eta mutil dantzak landuko dituzte ikastaroan, besteak beste.

Izena emateko: [sabin@bizkai-elkartea.net](mailto:sabin@bizkai-elkartea.net)

## EUSKARAZ IRAKURTZEA PLAZERA DELAKO

Udalaren Gazteria Zerbitzuak Gaztezulo aldizkariak bultzatutako Irakurri Gozatu egitasmoan parte hartuko du barrik ere. Euskaraz idatzitako produktuen kontsumoa eta, oro har, irakurtzearen plazera sustatzea helburu du egitasmoak. Joan den ikasturtean Aixerrota, Azkorri, Julio Caro Baroja eta Fadura ikastetxeek hartu zuten parte Irakurri Gozatu proiektuan. Hezkuntza zentroari Gaztezulo aldizkaria sei hilabetez dohainik jasotzeko aukera ematen diete egitasmo honeguz.

# Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak  
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industriakdea  
Etxalde 2 - Pabioi 11  
48330 Gorliz

Mob.: 607 148 346  
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>



**Jose Mari Beascochea** > Geografia eta Historian Doktorea EHU

## “Eraikinak herriko historia eta bilakaera azaltzeko erabili ditut”



Jose Mari Beascochea

Europako Ondare Jardunaldien barruan, hitzaldi bi antolatu dituzte Getxon urrian. Jose Mari Beascochea EHUko historia irakasleak, herriko ondare zibila aztertu zuen hilaren 7an; hiru arotan banatuta herriko bizi-moduari eta bilakaerari buruz egin zuen berba, eraikin esanguratsuenak historiaren ispilutzat erabiliz. 28an, Getxoko auzoz auzoko bilakaera izango du berbagai Ama Mesedeetako elizan arrastiko 19:00etan eskainiko duen hitzaldian. Eraikuntza erlijiosoaren eta ingurunearen artean ere harreman estua dago.

—Zelan egituratu dituzu hitzaldiak herriko ondarea eta historia lotzeko?

—Hitzaldi bi direnez, bloke bitan banatu dut gaia, nahiz eta biek herriko historia azaltzea duten helburu: nola sortu zen Getxo eta zeintzuk izan diren bere historiaren ardatz nagusiak. Nola ulertu behar dugu gaur egungo Getxo, iraganean gertatutakoa kontuan hartuz. Ispilu moduan ondare ukigarria erabili dut.

—Ondare zibila eta erlijiosoa landuko dituzu; zelan ezberdindu duzu?

—Ondare erlijiosoa zer den oso argi

dago: elizak, ermitak eta hilerria. Gai-nontzeko guztia, ondare zibila da, publikoa zein pribatua. Ezin dira erabat banatu, gizarte berberak sortu baitzituen biak. —Herriko historia hiru fasetan banatu duzu, zeintzuk dira?

—Alde batetik Erdi Arotik, sorreratik, 1800. urtera arteko bilakaera aztertu dut. Bigarrena, trantsizio garaia da, 1800-1860 urte artekoa. Azkenik, 1860. urte-tik Gerra Zibileraino doan tartea aztertu dut. Frankismo garaian ez dut sartu gura izan, berezitasunak dituelako. Badira

herria ulertzeko funtsezkoak diren gertaerak eta eraikinak eta horiekin jolastu ditut. Getxoko lehenengo fasea, Erdi Aroan, Andra Mari inguruan, nekazal munduan kokatu zen. Bertako gizarteak eraikin bereziak sortu zituen: Andra Mariko eliza, baserriak eta gotorlekuak. Azken horiek kokapen geografikoagaz lotuta daude; Abra babesteko funtzioa bete zuen Getxok. Aitoren Semeen bilakaera ere aztertu dut; ez ziren Getxon bizi Martiartu, Asua eta ingurukoak ezkondu eta bertara joaten zirelako. Horregatik, euren dorrea txikia zen, erre egin zen

### «Lehen fasean, Andra Mariko baserriak, gotorlekuak eta portua sortu ziren»

eta ez zuten berreraiki. Algortako portua ere lehenengo fase horretan sortu zen.

—Ondare erlijiosoan zer azpimarratuko duzu?

—Trikimailu batzuk erabiliko ditut kasu horretan. Erlijiosoan ez dago zibilean beste material; hamar eraikin inguru daude. Hitzaldiaren asmoa ez da eraikinen analisi arkitektonikoa egitea; aipatutako hiru faseak berreskuratuko ditut eta fase bakoitzean sortu ziren elizak izendatuko ditut. Argazki zaharren bidez eraikuntzen ezaugarriak azalduko ditut; ondoren eraikin horiek, inguruan bizi ziren biztanleekin zuten lotura azalduko dut. Erregimen Zaharrean, herriaren erdian eliza kokatzen zen beti; hori ikus dezakegu Andra Marin. XIX. mendean Getxon auzo bat sortzen zen bakoitzean eliza barria egiten zuten: Santa Ana, Romo, Neguri... elizen bidez Getxoko auzoen planifikazioa eta eraikuntza prozesua ikus daiteke. Arlo artistikoa eta urbanistikoa uztartzen saiatuko naiz. ○

## Hamaika indaba gazte

Azaroaren 30ean ospatuko dute Algortako gazteek Biotz Alai plazan. **XI. Indabada**



Joan den urtean giro ederra sortu zen X. Indabadan

**Hamaika gazte**, hamaika bizipen, hamaika platerkada, hamaika Indabada. “Badira hamaika herria astintzen” leloa aukeratu dute Algortako Gazte Asanbladako lagunek XI. Indabadarako. Urriaren 30ean, zapatua, maitasunez, lapiko handian egindako indaben usain gozoak hartuko du Biotz Alai plaza.

Goizeko 10:00etan hasiko dira herriko gazteak Algortako kaleak girotzen di-nagaz. 13:00etan kupelak estreinatuko dituzte txotxagaz. Ondoren, ekitaldia egingo dute. Bazkalondo luzea eta gero, poteoaren txanda izango da, 20:00etan, herriko tabernetan. Gaua luzatzeko go-

goa duenarentzat, Txorimalo Gaztetxean jarraituko du parrandak goizeko ordu txiketara arte. Sorpresak eta kale animazioa egingo dira egunean zehar.

Azken urteotan oso jendetsua bilakatu da Indabada eta zaila egin da egun handirako guztia prest izatea; hori dela eta, herritarrek egunean bertan zein aurretik egin beharreko prestaketan parte hartzera animatu gura dituzte ekimenaren bultzatzaileek.

Bazkaritarako txartelak ohiko tabernetan (UK, La Plaza, Gestoras) zein Eztabaida Gune Antiautoritarioan (Amezti kalea) daude salgai. ○

## IPARRALDEKO ZAPORE ETA AHOTSAK GUREAN

Iparra Galdu Gabe Jardunaldietan badago zer ikusi, entzun eta dastatu oraindik. Urriaren 21ean Jon Cazenave argazkilararen “Herri ixilean” erakusketa egileagaz bisitatzeko aukera egongo da 18:00etan Torrene erakusketa aretoan. Leku berean, Baionako “Cazenave” txokolatearen dastatzea egingo dute urriaren 22an 19:00etan; ondoren Anje Duhalde abeslariak omenaldi xumea egingo dio Daniel Landart Euskal Kultur Erakunde-kideari. Egun berean, 20:30ean Algortako kaleetatik kalejira egingo dute Uztaritzeko Txarangako lagunek. Gauean Kantu afaria izango da, 22:00etan Faduraiko erretegi zaharrean. Peio Etchecopar ipuin kontalariak eta Asisko Urmeneta marrazkilarik ipuin eta inprobisaturiko ilustrazio ikuskizuna egingo dute azaroaren 4an, 20:00etan Torrene aretoan. Otto haurrentzako ikuskizunagaz amaituko dira Jardunaldiak, azaroaren 7an 11:30 eta 13:00etan Villamonten.

## KONTSUMO TALDEA EUSKARAZ ALDAIN

Bizarra Lepoan Euskara Elkarteko lagunek kontsumo talde euskalduna sortu gura dute urrian. Sonia Ingunza baserritarrak kontsumo taldeen funtzionamenduari buruzko berralditxo emango du Aldai Patronatuan urri akabuan. Hilero produktu ekologikoak etxean izateko aukera emango dute; hiru hilabeteko konpromiso minimoa eskatuko da eta hilean 10, 15 edo 20 euroko kuota ordaindu beharko da, kontsumitzen denaren arabera (hortik gora norberak eskatutako produktuak ordainduko dira).

Informazio gehiago: [egizugetxo@gmail.com](mailto:egizugetxo@gmail.com)

## POOL SESSION KANTERA SKATE ESKOLAN 23AN

Urriaren 23an Pool Session skate erakusketa egingo dute La Kantera Skate Eskolako lagunek Arrigunagako pistan. Goizeko 10:00etan hasita, zortzi eta hogei urte bitarteko patinatzaileak ikusi ahal izango dira, hiru kategoriatan banatuta: 8-11 urte, 11-15 urte eta 15-20 urte. Bazkaria eta kontzertuak ere egingo dituzte.

**lagusana**  
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59  
(Tellagorri plaza)  
48991 ALGORTA  
Tf. 94 491 14 12  
[lagusana@lagusana.net](mailto:lagusana@lagusana.net)



**Arantza Gutierrez Paz** > Emakumeen ikusgaitasuna hedabideetan jardunaldia

“Hedabideek emakumeei buruz ematen duten irudiaz ohartarazi gura dugu”

Urriaren 13an eta 14an burutu barri dute **Emakumeen ikusgaitasuna hedabideetan jardunaldia** EHUko kanpusean, euskaraz. Arantza Gutierrez Paz, Iratxe Fresneda eta Itxaso Fernandez irakasleek antolatu dute. Gutierrezek eman zigun haren barri egun batzuk lehenago.

—Lehenengoz antolatu duzue horrelako zerbait, nolatan?

—Ikerketak genero ikuspegitik egiten genbiltzan fakultateko hiru irakasle bildu ginen eta gaiagaz lotutako jardunaldi bat egin behar zela pentsatu genuen. Euskaraz egitea erabaki genuen, gaztele-raz egin izan dira eta.

—Nolakoak izango dira?

—Hedabideetan lanean dabilen hainbat emakumek kontatuko dute euren esperientzia. Goizetan egingo ditugu hitzaldiak eta mahai-inguruak eta aztertuko dugu zer egin daitekeen emakumeaz ematen den irudia aldatzeko. Baina teknologia barriak ere landuko ditugu. Blogak sortzeko tailerra prestatu dugu. Emakumeek oraindik gutxi erabiltzen dute internet, baina badaude sare feministak eta horiek ezagutuko ditugu: artisten sareak, emakumeen irriariak, e.a. Eta



Itxaso Fernandez eta Arantza Gutierrez Paz

bide batez, ondo pasako dugu.

—Zergatik aukeratu duzue internet eta blogak?

—Batetik, interesekoak ditugulako. Bestetik, ohiko hedabideetan sartzea edo gure ahotsa entzunaraztea zailagoa da, baina interneten errazago da aldatetako eragitea. Bakoitzak egin dezake komunikatzaile lana, bere testuak eta ahotsa interneten ipini, eta zentzu horretan, demokratikoagoa da internet ohiko

hedabideak baino.

—Zein da helburu nagusia?

—Hedabideek emakumeei buruz ematen duten irudiaz ohartzea. Emakumeak ez gaude ikusgai hedabideetan eta aztertuko dugu nola eragin daitekeen aldaketan. Horregatik izenburua, *emakumeen ikusgaitasuna*.

—Nortzuk parte hartuko dute?

—Irakasleok, ikasleak, eta orokorrean, gaian interesa daukan edonork. ○

## Erdu geugaz euskaraz!

Abiatu dute **Berbalagun egitasmoa** Leioan, euskaraz bizitzeko urrats barria



Izena emateko: euskaltegiak, Euskara Zerbitzua, leioa\_berba@aek.org edo 607 632 655

**Klasetik** edo euskaltegitik kanpo gutxitan egiten da euskaraz Leioan, “*euskaraz bizitzea ez da erraza; aukera gutxi ditugu euskaraz berba egin ahal izateko*”, horregatik abiatu dute Berbalagun egitasmoa AEK-k, Udal euskaltegiak eta Udaleko Euskara Zerbitzuak. Euskaraz mintzatzeko taldeak dira, praktikatu ikasten eta hobetzen baita. Herriko euskaldunak elkar ezagutzeko helburua ere badaukate.

Uribe Kostan, Erandion eta Algortan aspaldi biltzen dira berbalagunak, baina Leioan ikasturte honetan hasiko dira, eta dagoeneko, izena eman daiteke parte hartzeko. Euskaltegietan edo Euskara Zerbitzuan eskura daiteke izena emateko

fitxa, baina posta elektronikoko bitartez edo telefonoz ere egin daiteke: *leioa\_berba@aek.org* edo 607 632 655.

Lauzpabost laguneko taldeak osatuko dituzte, adinaren, ordutegiaren eta zaletasunen arabera. Dinamizatzaile bana aukeratu eta erabakiko dute non, noiz eta zer egiteko bildu, besteak beste: poteoan atera, kontzertuetara joan, txangoak antolatu edota berbalagunentzako sortuko diren ekintzetan parte hartu.

Era berean, sustatzaileek elkarlanean hasi gura dute herriko talde, elkarte eta norbanakoakaz, “*euskararen normalkuntzan denon ahalegina eta ekarpenak beharrezkoak baitira*”. Elkarren artean berbetan, euskaraz gero eta hobeto! ○

## 30 URTE OSPATUKO DITU MUSIKA ESKOLAK

Hiru hamarkadatan trebatu dituzte musikariak Udal Musika Eskolan, eta merezitako ospakizuna egingo dute. Dagoeneko hiru kontzertu eskaini dituzte Kultur Leioan, baina handiena etortzeko dago, Bilboko Euskalduna Jauregian. Urriaren 23an izango da, 20:00etan, eta atal bitan banatuko da. Lehenengoan abestuko dute La Kantoriak, San Juan Bautista Abesbatzak eta Kantika koralak, Basilio Astulez buru. Bigarrenean arituko da Leioako Gazte Orkestra. Amaitzeko, Josu Elberdin konpositorearen *Magnificat* obra interpretatuko dute Gazte Orkestrak eta Kantika koralak, hainbat kantari, albokari, txalapartari eta Kepa Junkera trikitilariak lagunduta.

## MERKATARIKAZ HITZARMENA LUZATUTA

Udalak eta Merkatarien Elkarteak akordioa luzatu dute elkarlanean X. urteurrenean, elkarlanean bitartez herriko merkatal sarea bultzatzeko eta barrikuntza teknologikoak aplikatzeko merkataritza sektorean. Era berean, asmoa erakutsi dute Bulebar inguruan merkatal funtsa bultzatzeko; hori gauzatzeko Avanzadan estalitako zatia bikoizteko proposatuko ei du Udalak.

## MUNDUA LEIOARA, MUSIKAREN BITARTEZ

Kultur Leioan gauzatzen ari da Munduko Musiken Denboraldia. Urriaren 8an eskaini zuen kontzertua Omar Faruk turkiarrek, eta hilaren 22an ekarriko du txalapartaren hotsa Juan Mari Beltran euskaldunak. Azaroan ere izango da zer entzun. Hilaren 12an arituko dira Rodrigo Leaõ eta Cinema Ensemble portugaldarrak. Azaroaren 26an itxiko dute denboraldia Alasdair Fraserrek eta Natalie Haasek. Eskoziatik iritsiko dira eta *In the moment* ikuskizunagaz aretoa bustiko dute biolin eta txelo doinuaz. Emanaldi guztiak hasiko dira 21:00etan, eta sarrerek 20 eta 25 euro balio dute.

**udondo**  
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2  
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

**ERROTULOAK**



Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

ERA GUZTIETAKO  
ERROTULUAK eta  
INPRESIO DIGITALAK  
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net



Luberr Basolanak, SL  
Ape ibaiertza 28A  
beheko solairua B12 lokala  
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38  
Tf. 94 467 17 13  
Faxa: 94 467 42 41  
luberr@euskalnet.net  
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua presatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsazko ongaitze lanak eta enila lanak.

- Soropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongaitzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrikatzea, soropil gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaizka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea



## [erandio]

**Kultura eta Mikologia Astea** > Atxazpe Mendi Taldea

“150 eta 200 perretxiko eta ziza mota desberdin erakutsiko dugu urriaren 24an, domekan”

**Urriaren 24ra arte luzatuko da Kultura eta Mikologia Astea Astrabuduan. Atxazpe Mendi Taldeak antolatu du, sasoi honetan urtero legez. Argazki lehiaketa eta hainbat erakusketa, hitzaldi eta proiektio prestatu dituzte.**

**Astlehenean** hasi da Kultura eta Mikologia Astea Astrabuduan, urriaren 18an. Udagoieneko euriteakaz batera atera ohi dira perretxikoak eta zizak gure bazterretan, “sasoi aproposa ekimena antolatzeko”, Julio Gonzalez Atxazpe Mendi Taldeko zuzendaritzako kidearen iritziz. Izan ere, eurek antolatu dute Mikologia Astea.

Erakusketakaz ekingo diote ekimenari. Mineralak batetik, argazkiak bestetik; argazki lehiaketa egiten baitute urtero, mendiagaz eta naturagaz lotuta. Irailetik ari dira argazkiak egiten. Aste osoan erakutsiko dituzte Josu Murueta Kultur Etxeko erakusketa aretoan eta bertatik igaroko dira epaileak. Sarituen barri emongo dute eguenean, urriaren 21ean.

Proiektioak eta hitzaldiak ere eskainiko dituzte, hiru egunetan. Martitzena 19an emango dute Mikel Zabalza eskalatalearen bidaia Karakorumeren. Eguaztena 20, barriz, Diego Dulantok



Urriaren 18tik 24ra izango da Mikologia Astea Josu Murueta Kultur Etxean eta plazan

eta Josu Granjak eskainiko dute “Geografia ezezagun baten esplorazioa”. Amaitzeko, Alex Chiconek Makalura egindako txangoa egongo da ikusgai barikuan, hilaren 22an. Proiektio guztiak hasiko dira 20:00etan, Josu Murueta Kultur Etxeko areto nagusian.

Baina Julio Gonzalezek ziurtatu duenez, urriaren 24ko “*ikuskitzak bildu ohi du ikusle gehien, perretxiko erakusketa*”, duda barik. Perretxiko freskoak erakutsiko dituzte aurten ere, aurreko egu-

netan batutakoak. Izan ere, barikuan eta zapatuan urtengo dira ziza bila Atxazpekoak, taldeka. Bakoitza leku batera joango da, Burgos, Altube, Ordunte, Unbera e.a. Gezurra badirudi ere, hemendik gertu topa daitezke ehunka mota, eta Gonzalezek dioenez, guztira “150 eta 200 perretxiko eta ziza mota desberdin erakutsiko” dituzte. Ondoren sailkatuko dituzte Barakaldoko Mikologia Taldeko kideen laguntzagaz, domekan erandioztarrei erakusteko. ○

## Emakumeak, gora oihala!

Abian da **Emakume Zirkuitua antzerkian; Viajeras al tren!** izango da urriko azken lana



Viajeras al tren laneko une bat

**Laugarren** edizioa abiatu du Emakume Zirkuituak, antzerkian. Ikasturte osoa iraungo du eta hilean behin eskainiko dituzte antzezlanak, Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Udaleko Kultura sailak antolatu du.

Hil honetarako aukeratu dute *Viajeras al tren* obra, urrirako. Felipe Cuetak zuzendu eta Hamaika antzerki taldeak antzeztuko du, ondoko aktoreek parte hartuko dute: Maika Gonzalez, Macarena Ortega, Blanqui Rotaetxe, Manoli Esteban, Edurne Larrinaga, Maria Victoria Albizua, Maria Cespedes, Juana Mari Perez eta Loli Noguera. Hilaren 30ean izango da, 19:30ean, eta 2 euro ordaindu

beharko da sartzea.

*Viajeras al tren* lanak hainbat pertsonaiak trenaren zain bizitakoa kontatzen du: Concepcion eta Inmaculada ama-alabak dira eta hileta batera doaz, Adela eta Amparo ahizpak ezkontza batera, eta Primitiva, garai batean utzitako herrira itzultzeko irrikan dago.

Arcadia eta Pura lagunek, ordea, oporrak amaitu dituzte eta etxera bueltan datoz, eta Dorak, bere burua aurkitu guran topatu du Engracia. Denak daude trenaren zain geltoki berean. Bide beretik doazen helburu desberdinak dituzte, ala hamaika helburu dituen bideari jarraitzen diote? ○

### ERANDIOGOIKOARA BISITA GIDATUA 30EAN

Ondareari buruzko Europako Jardunaldien baitan antolatu dute bisita gidatua Erandiogoikoa, Andra Mari elizara eta Udaletxe zaharrera. Juan Manuel Gonzalez Cembellin Bilboko Eliz Museoko zuzendari teknikoak gidatuko du. Urriaren 30ean lotu dira Erandiogoikoako Euskadi plazan, 10:30ean. Urriaren 26a baino lehen eman behar da izena Udaleko Kultura sailean.

### GURUTZ PUNTUKO KOADROAK

Azken egunak dituzu Gurutz puntuko koadroak ikusteko Udaletxeko erakustaretoan, Altzagako Irailaren 23a plazan. Maria Teresa Garcia Sanchezen lanak dira eta urriaren 24ra arte daude ikusgai. Erakusketa bitxian etxeko hormatik aretora jauzi egin dute lanek.

### ERANDIO LAGUNTZA SOZIALEN PREMIA

Eusko Jaurlaritzari dirua eskatu dio Udalak, Laguntza Sozialetarako partida agortu delako eta larrialdiarako laguntza eskaera guztientzako diru barik lotu delako. “*Krisi egoera dela eta izugarri igo da eskaria eta irailaren 15etik ezin izan dugu laguntzarik eman*”, jakinarazi du Udalak. Azarora arte 55.000 euro beharko luke eskaerei aurre egiteko.

### ASTRABUDUKO PARKINA ITXITA ABENDURA ARTE

Astrabuduko metro geltoki ondoko aparkalekua itxi dute abendura arte, geltokia eta herria hobeto lotuko dituzten eskailera eta igogailuak egiteko lanak direla eta. Estalitako pasabidea ere egingo dute, ia maldarik gabe, zoru ez labaingarriagaz eta argiztapen bereziagaz, umeentzako aulkiek eta gurgildun-aulkiek erosoago egin dezaten metrorako bidea. Lanak amaitutakoan zabalduko dute barriro aparkalekua.

Terrera 2  
48990 ALGORITA  
94 491 12 71  
instielgorte@gmail.com

**irati**

OPARIAK MODA GAZTEA

**Jurikaldei**

JOKIN GARATE BAYO      KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9      Angeruaran etorb. 4B  
T: 491 14 87      (sarrera, Jata Mendia) T: 490 01 87  
48990 NEGURI      48990 GETXO

**tanta.**      estetika

Basagoiti etorbidea 85 (Algorta)  
Tf: 645 739 780

Zure beharren araberrako ordutegia

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak  
Eskailera igogailuak  
Plataformak

**ARLAN** ASCENSORES

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz



## PERKUSIOA IKASTEKO ORAIN DUZU AUKERA!

Azaroan egingo dute perkusio ikastaroa Gazte bulegoan. Perkusioagaz lehen harremana landuko dute eta ondoko gaiak aztertuko dituzte ikasleek: pultsoa, erritmoa, taldea, perkusio motak, e.a. Horretarako hainbat tresna erabiliko dute: klabeak, darbuka, kajoak, e.a. Munduko erritmoak ezagutuko dituzte eta perkusioaren oinarriko teknikak ikasiko dituzte (arabiarak, afrikarrak, e.a.). Martitzenetan eta eguenetan izango da ikastaroa, 18:00etatik 20:00etara. 20 euro ordaindu beharko da.

Informazio gehiago: **Gazte Bulegoa** edo [oj@sopelana.net](mailto:oj@sopelana.net)

## EUSKAL LITERATURA TAILERRA PLAZA BELTZAN

Urriaren 28an abiatuko du Euskal Literatura Tailerra Plaza Beltza Kulturgunean. Joseba Sarrionandia idazlea aukeratu dute hasteko, eta lehenengo egunean birpasatuko dute bere biografia, gainera, haren liburuei buruzko mahai ingurua ere egingo dute. Ondorengo hitzorduan *Kolosala izango da* liburuari buruz arituko dira, Sarrionandiaren lanagaz jarraituz.

Izena emateko: **Plaza Beltza Kulturgunean** edo [plazabeltza@gmail.com](mailto:plazabeltza@gmail.com) helbidean

## UDAZKENA EKIMENEZ BLAI SEKEKO GAZTETXEAN

Urriaren bukaeran abiatuko dituzte ekintzak Sekeko Gaztetxean eta buru belarri dabilza prestatzen. Oraindik ez dute zehaztu egitaraua, baina aurreratu dutenez, alboka ikastaroa egingo dute, besteak beste. Webgunearen bitartez emango dute ekimenen barri, zehaztu ahala: <http://sopelakogazteasanblada.blogspot.com>. laz okupatu zuten Sekeko errota Sopelako gazteek eta jabeak euren esku utzi zuen eraikinaren kudeaketa. Orduetik errota konpontzen ibili dira, eta hainbat ekintza ere gauzatu dute.

## More koloreko zinea

Itzartu taldeak eskainiko du, **zinea genero ikuspegitik** zikloa, apirilera bitarte



*El erizo* filmagaz abiatuko dute zikloa, urriaren 21ean

**Batez ere** “*emakumeei zuzendutako filmak*” eskainiko ditu Itzartu emakumeen taldeak hemendik eta apirilera, *Zinea genero ikuspegitik* zikloaren baitan: “*Egungo arazoakaz, indarkeria kasu, emakumeei bereziki zuzendutako pelikula eskainiko ditugu, eguneratu eta egorraz jabe gaitzen*”.

Filmen ondoren foruma egingo dute eta dinamizatzailer baten laguntza izango dute. Itzartukoek diotenez, pelikula nor bere kabuz ikustean ez da sakontzen: “*dinamizatzailerak laguntzen digu gaiari heltzen eta sakonera iristen*”.

Dagoeneko hiru bat urte daramate zikloa antolatzen, arrakasta handiz, eta Udalaren laguntzagaz. Aurten Kurtzio Kultur Etxean egingo dute zineforuma, Itzarturen lokala txikia lotu zaielako.

Hamabostean behin izango da eta urriaren 21ean abiatuko dute, *El erizo* pelikulagaz; beti izango da eguenetan eta 17:30ean. Hurrengo emanaldiak prestatu ahala iragarriko dituzte, baina ekitaldi berezia egingo dute azaroaren 25ean, Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean, ohi legez. ○

**Juantxo Estebanz** > idazlea

“Lemoiztik aberastuz joan da ekologismo politikoa; gatazka barriak agerrarazten ditu”



Lemoiz, Leitzarano eta Itoizko borroka ekologistak ditu hizpide Estebanzaren liburua

**Urriaren 14an** bisitatu zuen Plaza Beltza Kulturgunea Juantxo Estebanz bilbotarrak; *Los pulsos de la intransigencia* bere liburuari buruz aritu zen.

—Euskal Herriko hiru borroka ekologiko bildu duzu liburuan: **Lemoizko Zentral Nuklearra, Leitzarango autobiodea eta Itoizko urtegiaren aurkakoak**.

—Lurraren babeserako hiru borroka horiek aukeratu nituen bi arrazoiengatik. Batetik, kutsu ekologikoa gainditu zuten eta garai historikoko borroka nagusi bihurtu ziren: garai politikoa aldarazi zuten. Bestetik, borroka bakoitzak lagundu du Euskal Herriko garai historiko bakoitza. Lemoizkoak baldintzatu zituen 70eko urteetako aldarrikapen prozesuak, Leitzarangoak 80ko azken urteak eta 90eko lehenengoak, eta Itoizkoak 2000 ingurukoak.

—Euskal Komunitate Antidesarrollista batez diharduzu.

—Hiru prozesuok aztertuta, ondoriozta

daiteke badagoela jarraikortasun hari bat. Pilatuz joan dira ekologismo politikoaren lehen zirriborroetan, Lemoizen abiatutako esperientziak eta jakituria praktikoak. Orduetik sortuz eta aberastuz joan da talde politiko bat, horregatik hitz egiten dugu komunitate batez. Egun oraindik darrai lanean eta gatazka zelai barriak erakusten eta agerrarazten.

—Orain puri-purian dago Abiadura Handiko Trenaren auzia.

—Liburua ere tresna bat da gatazka

### «Liburua tresna bat da gatazka barrii aurre egiteko»

barrii aurre egiteko. Orain AHTren auzia dago. Egitasmo horren aurkako talde aitzindariak 90eko urteen erdialde-ra hasi ziren, baina orain bost urteko ekinbidea kokatu da politikaren erdigunean. Egungo komunitate horrek tresna praktikoak ezagut ditzan helburua ere badauka liburuak. ○

**LAIKAK**  
**Taberna**

**EGUNKARIAK**  
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34

**DIDAK**  
**hamilton**  
**IDIOMAS**

**Ingelesa, Frantsesa eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
[info@didakhamilton.com](mailto:info@didakhamilton.com)

**4 bide**  
pinturak

Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

**ANDER DEVNA**  
**IKASTOLA**

- Hezkuntza integratua urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barnikuntza

Gatzarrine s.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)



**Rafael Parejo eta Ingrid Kuschick** > Txoke! taldeko kideak

“Ahoz aho transmititzen den kultur ondarea jasotzen dugu, gordetzeko eta mantentzeko”

Ingrid Kuschick eta Rafael Parejok urteak daramatzate Berangon bizitzen. Antropologoa da lehena, etnomusikologoa bigarrena. Txoke! taldeko kide dira eta kultura ondare inmateriala aztertzen dute. Horri buruz kongresua egin zuten Bilbon urriaren 13tik 16ra, baina aurretik erantzun zizkieten gure galderi.

—Txoke! taldea nahiko ezaguna da Berangon.

—Taldea ez dakigu, gu agian, bertan bizi garelako. Baita herriko ondare historikoa aztertzen hasi ginelako ere. Oraingoan albo batera utzi behar izan dugu, diru-laguntzarik ez baitugu. Baina etorkizunean berrartu gura dugu gaia.

—Horrelako gaiak ikertzen dituzue Txoke! elkarteak?

—Belaunaldien artean ahoz aho transmititzen den kultur ondarea jasotzen dugu: kantak, dantzak, ipuinak, e.a. Inork jaso ezean, gal liteke. Guk grabatu eta filmatzen ditugu tokian toki. Ondoren, lan hori kontserbatu behar da, filmoteka edo fonoteka batean gordez. Aurretiko grabaketak ere berreskuratzen ditugu artxiboetatik, batzuk konpondu behar dira, zaharrak nahiko hondatuta egon litezke eta.



www.txoke.eu gunean topa daitezke kongresuaren ondorioak

Azkenik, lan horiek zabaldu behar dira, jendeari itzuli. Txoke! taldeak horiek egiten ditu, denetarik daukagu: ikerlariak, artxiboetako langileak, hedapenean adituak, editoreak e.a.

—Kongresua gai horri buruzkoa da.

—Hori da, kultur ondare inmaterialaren arloan ideiak elkartrukatzea da asmoa, eta adituek laguntzea parte hartzailei hori dena praktikara errotan, aholkuak emanaz. Kultura ukiezina aztertzen dugun

ikerlariak gara, hainbat herrialdetatik etorriak: informazioa biltzen dutenak, artxiboak dituztenak zein elkarteetako kideak. Ondare bilketatik zabalpena arteko kateaz eztabaidatzea da asmoa. Lagun asko eta asko gara eta Udal artxiboa txiki geratu zaigu. Euskaldun pila bat animatu da. Ponentziak berezko hizkuntzan daude, eta horien laburpenak, hainbat hizkuntzatan. Kongresuaren webgunean ikusgai daude: [www.txoke.eu](http://www.txoke.eu). ○

**Rafa Aspiunza** > Okeanos argazki erakusketaren egilea

“Hilzorian dagoenak ematen dit arreta: batel zaharrak e.a.”



Rafa Aspiunza argazkilaria

**Goñi Portal** Kultur Etxean itsasoa ardatz duen erakusketa ikus daiteke urriaren 25a arte. Rafa Aspiunza argazkilaria getxoartzarrak itsasoaren ikuspegi ezberdinak batu ditu *Okeanos* bilduman. Eskualdeko kostaldeak garrantzia du erakusketan; Huelvatik Britainiara doan kostaldearen beste txoko batzuk ere ikus daitezke.

—Nola hasi zinen argazkiak egiten?

—Ez naiz argazkilaria profesionala, “zale-tasun aurreratua” da nirea. Orain hamar urte hasi nintzen argazkiak egiten, nahiz eta umetatik ibili naizen kuxkuxean. Itsasoaren gaia betidanik izan zait hurbilekoa; Arriluze kaian batela dugu eta aititegaz arrantzan joaten nintzen txikitik.

—Zer aurkituko dugu *Okeanos*-en?

—Hasierako egitasmoa handiagoa zen, baina, baldintzak zirela eta, mugatzea erabaki nuen. Huelvatik, Iberiar Penin-

tsula osoa zeharkatuz, Britainia arte egindako kostaldeko argazkiak bildu ditut. Hasiera batean, Getxon erakusteko egin nuen, horrexegatik, dira argazki gehienak Getxokoak.

—Zein berezitasun dute argazkiek?

—Hilzorian dagoenak, amaitzen ari denak deitzen du nire arreta: batel zahar-

**«Huelvatik Iberiar Penintsula zeharkatuz, Britainia arte»**

rrak, egurrezko itsasontziak e.a. Euskal Herriko kostaldea itzela da, uste duguna baino indar handiagoa du; Azkorriko hiru argazki erabili ditut eta ikusi dutenek ez dute asmatu nongoak diren.

—Beste egitasmoren bat esku artean?

—Getxoko bela estropadetan argazkiak atera eta web orri batean esekitzen ditut; arrakasta handia dute. ○

[www.aspiunza.com](http://www.aspiunza.com)

**OINUTSiK** Kontrata pedagogikoa  
Nafar Ardetik Dikoa, 234 lot. alda.

Zukijena 4 (Guztira orduak da guztiak)  
Sopelana 48600  
Tfn. 94 404 74 30  
GTA 30000  
oinutsk@euzkadi.net

**OLINAK DITZU OINUZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAHITZKE!**

**BASARTENA**

**URDULIZ**

Teléfono: 946 761 128

**OSABIDE HORTZ & LINIA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontia
- Periodontia
- PADI

Bilbarr 27. beheko solairua  
ALGORIA  
94 430 76 96

**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tf. 94 676 07 15

**AIXERROTA BHI**

• TEKNOLOGIKOA  
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARRÉN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / Tf. 94 491 17 86



## BERBALAGUN TALDEEN AURKEZPENAK URRIAN

Euskararen laguna bazara edo izan gura baduzu, Uribe Kostan badituzu zu bezala mihiari astindutxo eman gura dioten Berbalagunak. Urriaren 18tik 23ra egingo dituzte taldeen aurkezpenak eta horietan parte hartzeko deia egin dute antolatzaileek: 18an Sopelako Kurtzion, 19an Plentziako Goñi Portalen, 20an Gornizko Eloisa Artaza aretoan, 21ean Lemoizko Kultur Etxean eta 23an Urdulizko Kultur Etxean. Aurkezpen guztiak 19:00etan izango dira, Urdulizkoa izan ezik, 12:00etan.

## ETXERA HURRERATUKO DA LARRIALDI MEDIKUA

Plentzia, Lemoiz, Barrika eta Gornizko auzokideei zerbitzua emango dien etxez etxeko larrialdi medikua beharrenez hasi zen urriaren 1ean. Gornizko Etengabeko Arreta Gunean astelehenetik barikura 15:00etatik 24:00etara emango du zerbitzua; zapatu, domeka eta jai egunetan aldiz 08:00etatik 24:00etara egongo da zabalik. Ordutegi horretatik kanpo aipatutako medikuak artatuko ditu larrialdiak.

## ERRETZEARI UTZI GURA DIOZU? HEMEN AUKERA

Uribe Kostako Mankomunitateak erretzeari uzteko talde-terapia egingo du azaroan eta abenduan. 10 laguneko taldeak sortu eta psikologo baten laguntzaz egingo dute behar. Terapiak zazpi aste iraungo du eta ordubeteko saioak egingo dira astero.

## GORLIZ

### Elizaren historia eta indusketen emaitzak



Gornizko elizako indusketak

**Ondare Jardunaldien** barruan, hiru ekimen antolatu dituzte Gornizko Udalak eta Turismo Bulegoak urrirako. Alde bate-tik, *1300 urte toki berean* izena duten bisita gidatuak egingo dituzte hilaren 23 eta 24an 12:30ean eta 29an 18:00etan. Hori-etan, VIII. mendekoa den Sortzez Garbia Eliza barrokoaren historia azalduko dute.

Bestetik, Teresa Gomezek, eliza ingur-ruan egindako arkeologia indusketen inguruko hitzaldia emango du 28an,

19:00etan Eloisa Artaza kaleko erakuske-ta aretoan. Herriko VIII. mendeko bizi-moduaz berba egingo du Gomezek, indusketak abiapuntu hartuta.

Azkenik, Gornizen orain arte ikertu diren arkeologi gune nagusi biak erakus-teko panel batzuk jarriko dira herrian zehar. Horietan Mandañu muinoari eta antzinako baserri buruzko informazioa bilduko dute, besteak beste.

Info+ : 94 677 43 48 / turismo@gorniz.net

# Urr. 18 - Aza. 02

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tf. 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### PLENTZIA

► **Okeanos, Rafa Aspiuzaren argazkiak.** Goñi Portalen. Urriaren 25era arte.

### GETXO

► **Jesus Maguregiren olioak.** Algortako erakustaretoan, urriaren 30era arte.

## MUSIKA

### GETXO

► **El veloz murcielago hindu.** Algortako The Piper's Irish Puben. Urriaren 21ean, 20:00etan.

► **Aste korala.** Algortako El Redentor elizan. Urriaren 21etik 29ra.

### LEIOA

► **Juan Mari Beltran. Munduko musiken denboraldia.** Kultur Leioako Auditoriumen. Urriaren 22an, 21:00etan. 20 euro.

### ERANDIO

► **Pergola orkestra.** Irailaren 23a plazan. Urriaren 24an, 17:30ean.



EVMH taldea

### ► Musika

### Getxo Live Algortako tabernetan, zuzenean

*Getxo Zuzenean-Getxo Live* zirkuitua antolatu du Udalak "bertoko pop-rock taldeak sustatzeko", eta dagoeneko abiatu da. Romo, Algorta eta Areetako tabernetan egingo dute, eguenero, 20:00etatik 22:00etara, doan. Kultur Etxeak eta Algortako Riff Musicak kudeatuko dute ekimena. Algortako Satis-tegi eta Romoko Trokazulo taberne- hartu dituzte urriko lehenengo kontzertuak, eta hurrengoak izango dira urriaren 21ean eta 28an. Lehena egingo dute Algortako The Piper's Irish Puben eta *El veloz murcielago hindu* taldeak joko du. Urriaren 28an, barriz, *Claris* arikuta da Areetako El Comercio kafetegian. Laster izango duzu kontzertu gehiagoren barri.

• **Non:** Algortan eta Areetan • **Noiz:** Urriaren 21ean eta 28an

## ZINEMA

### SOPELANA

► **El erizo.** Zinea genero ikuspuntutik. Kurtzio Kultur Etxean. Urriaren 20an, 17:30ean.

### URDULIZ

► **Shrek. Felices para siempre.** Kultur Etxean. Urriaren 23an, 18:00etan.

### GETXO

► **Toy Story.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Urriaren 31n, 17:00etan. 2,10 euro.

## ANTZERKIA

### GETXO

► **Potxin eta Patxin: zirkoa ezagutz.** Algortako Tellagorri plazan. Urriaren 23an, 12:30ean. Doan.

### ERANDIO

► **Vuelve bigotillo, vuelve.** Alzagako azoka zaharrenean. Urriaren 23an, 19:30ean. 3 euro.

► **Viajeras al tren. Emakume Zirkuitua.** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Urriaren 30ean, 19:30ean. 2 euro.

### LEIOA

► **Sincola.** Kultur Leioako Auditoriumen. Urriaren 24an, 12:00etan. 5 euro.

## BESTEAK

### SOPELANA

► **Laborantzia ekologikoari buruzko foroa.** Kurtzio Kultur etxean. Urriaren 23an, 10:00etan.

### ERANDIO

► **Sexu aholkularitza.** Drogamenpekotasuneko gelan. Urriaren 22an, 18:00etatik 20:00etara.  
► **Bisita gidatua Erandio Goikoatik.** Ondareari buruzko Europako Jardunaldiak. Urriaren 30ean, 10:30ean.

### PLENTZIA

► **Perretxiko astea.** Urriaren 25etik azaroaren 7ra.  
► **I.go Esaera Zaharren Txapelketa PTBn.** Plentzia Telebistan. Urriaren 22a arte, errepikapenak etengabe.

### URDULIZ

► **Berbalagun egitasmoaren aurkezpena.** Goñi Portalen. Urriaren 23an, 12:00etan.

### GORLIZ

► **Berbalagun egitasmoaren aurkezpena.** Erakustaretoan. Urriaren 20an, 19:00etan.

### LEMOIZ

► **Berbalagun egitasmoaren aurkezpena.** Kultur Etxean. Urriaren 21ean, 19:00etan.

## BERTSOLARI TXAPELKETA

### KANPORAKETA

► **Aulesti.** Kiroldegian. Urriaren 24an, domekan, 17:30ean.  
► **Igorre.** Kiroldegian. Urriaren 31n, domekan, 17:30ean.  
► **Getxo.** Gobelako kiroldegian. Azaroaren 7an, domekan, 17:30ean.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

# VASA



KLIMATIZAZIOA  
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK  
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)  
ENERGIA INGENIARITZA  
ENERGIA AUDITORIAK  
GEOTERMIA


BERANGO (BIZKAIA) [vasa@vasa.biz](mailto:vasa@vasa.biz) 94 668 1551 [www.vasa.biz](http://www.vasa.biz)



## ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA





## Gobelaren bideak

Gaur egun Areetako hondartzan eta Leioako Udondo auzoan itsasoratzen da Gobela ibaia, Areetan amaitzen da bide "naturala", eta Udondora arte jarraitzen du artifizialak. Baina ez da beti horrela izan, aldaketa ugari jaso du Gobelaren ibilbideak. Antzina Portugalete aurrean itsasoratzen zen eta harezko hesia eraikitzen laguntzen zuen: itsasontzi handiak ezin ziren igaro, horregatik desbideratu zuten ibaia.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**







## Burdinurtuzko zubi ezkutua

Astrabuduan

Udondo ibaia itsasoratzen den lekuan dago burdinurtuzko euskal zubirik zaharrenetakoa, Leioa eta Erandio arteko mugan. 1876an ipini zuten bertan, baina ez zuten Udondorako egin; Bilboko Areatzako edo Isabel II. aren zubiko arkuetako bat zen, eta hura eraitsitakoan, Udondoko zubia berreraikitzeke erabili zuten. Ez dago Udondotik ikusterik ordea, itsasadarretik soilik ikus daiteke zubia. Antza, XX. mende erdialdera, Bilbo eta Areeta arteko errepidea zabaldu behar izan zuten eta hormigoizko beste zubi bat itsatsi zioten burdinurtuzko arkuari. Balio handiko ondare ezkutua dugu, etxetik hur-hurrean.



[berbetan]

Bolivia hegoaldeko meatze-hiri batean jaio zen Ramiro Lizondo Diaz (Potosi, 1965). Aita meatzaria zuen, eta hala, hurbiletik ezagutu zuen meatzetako langileen bizimodua. Ekonomia ikasketak egin zituen Potosiko Unibertsitate Autonomoan, ostean Txileko unibertsitatean Kudeaketa eta Politika Publikoetan masterra egin zuen eta ondoren Historia eta Ekonomi Historiakoa ikasketak amaitu zituen Bartzelonan. Gaur egun, aurreko lau urteetan bestelako hainbat kargu bete baditu ere, Boliviako Gobernuko Presidentzia Ministerioko Plangintzako Zuzendari Nagusia da. Irail akabuan Bilbon egon zen, Boliviaren eta Guatemalaren inguruan EHUko Sarrikoko kanpusean antolatu zen kongresuko hizlarietako bat izan zen.

# Ramiro Lizondo

## Boliviako iraultza antolatzen

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Orain 4 urte, Bartzelonatik, zelan ikusten zenuen aldaketa aurreko Bolivia hura? —Egia esan, prozesu hau Bolivian 2000. urtean hasi zen; gizarte mugimenduen, sindikatuen eta abarren eten bako mobilizazioakaz. Natur baliabideen berreskuratzea eskatzen zuten, langileen eta nekazarien lan baldintzak hobetzeko biltzar konstituziogilea sortzea aldarrikatu zuten. Hortik aurrera borroka sozialen prozesua intentsiboa izan zen. Bitarte horretan erakutsi zen, herrialdeak jarraitzen zuten eredu neoliberalak ez zuela balio, ezta estatuaren interesentzat ere. Baliabide naturalak berreskuratzeko beharra aldarrikatzen zen, eta konstituzio barria eratzea. Noski, konstituzio barri batek zalantzan ipintzen zituen errenten banaketa egiturak, transnazionalen presentzia e.a. Horrek guztiak jendearen kontzientziazioa eragin zuen: erregimen neoliberalagaz amaitzeko beharraz, eta aldi berean, gizarte-klaseakaz ere, horiek ez zituelako erregimen neoliberalak bakarrik sortu, aurreko belaunaldi askok eta askok jasandakoak ziren. Orduan egin zen herri-

alde askotan Uraren Gerra lege ezagutzen dena. Gizarte mobilizazio haren bitartez lortu gura zena hau zen: enpresa transnazionalen esku zegoen ura berreskuratzea. Hain zuzen, hildako eta zauritu asko jasan zituen mobilizazio horri esker, lortu zen ura berreskuratzea; hau da, uraren operazioa esleituta zuen transnazionala kanporatzea, ura negozio bihurtu gura zuelako, eta hori gizarte mugimenduentzat onartezina zen. Hortik aurrera hasten da, apurka-apurka, eredu

**“Ezker tradizionalak zituen pertzepzio askori eta txarrei ere aurre egin behar izan diegu”**

neoliberalaren jauskera. 2003an, barrior ere, beste giza mobilizazio prozesu bati ekin genion, orduko hura Gasaren Gerra izenagaz egin zen ezagun. 2000n ura berreskuratzea lortu bazen, gizarte mugimenduek hidrokarburoak berreskuratze-ko aukera ere ikusi zuten, horiek ziren-eta Boliviako Estatuaren diru-sarrerara iturri nagusiak, eta herrialdearentzat berresku-

ratu gura ziren. Lortu ere lortu genuen, errepresioak kaleetan hamaika hildako utzi ostean; herri mugimenduaren beste garaipen bat. 2005 amaierako Evo Morales presidentearen izendapena, bere pareko bat presidentziara eroateko gizarte mugimenduen erabakiaren zantzua da. Jatorrizko herritarra da bera, baliabideak berreskuratzeko borrokan ibili zenetakoa, eta denon ordezkariatzat jotzen genuen. —Boliviarentzat aro barria zabaltzen da. Lau urteotan zeintzuk dira lorpenak?

—Bereziki ikastaldia izan da. Alde bate-rik, Boliviako ezker tradizionalak zituen pertzepzio askori eta txarrei aurre egin behar izan diegu. Ezker tradizionalak ez zuelako onartzen jatorrizko herrien mugimendu batek iraultza egin zezakeenik; eskuliburuak ei zioen “Zelan liteke! Iraultza langileriak egin behar du-eta, ez indigena eta nekazariak”. Hori beste erronka bat





izan zen; Boliviako ezker tradizionalari erakustea gizarte aktore barriak agertu zirela, indar handikoak, eta aldaketa garrantzitsuak egiteko baldintzak bazituztela. Momentu benetan erabakigarria izan zen, prozesua eraikitzerakoan eta bere aliantza sozialak eta politikoak batzerakoan. Ezkerre bere berezko mugen aurrean egokitu zen, baina aldi berean, gai izan zen garaia aldatu zirela ulertzeko, aktore barriak zuedela eta beste mota bateko mugimenduak buru dituen prozesu iraultzaile bat posible zela ikusteko. Esparru horretan jauzi handia izan zen; uste dut horrek ezkerre antolatza motibatu zuela, bere burua hobetzera eroan, barne gatazka asko gainditzera, eta jatorrizko herritar bat buru zuen prozesuari babesa emotera. Azken finean, erabakigarria izan zen Boliviako historian lehenengo bidez aldeko bozka gehien lortu dituen presidentea, indigena bat, hautatu zelako; aurretik inork ez zuen MASek 2005ean lortutako aldeko bozka kopurua lortu. Bestetik, aipatutako hidrokarburu, petrolio ustiapen e.a. berreskuratzea; transnazionalen kontrako borroka... Hori zen proposatutakoa. Aldaketa garaia iritsi da eta aldaketa horrek herrialdetik transnazionalak kanporatzea dakar, natur baliabideak berreskuratzea, eta estatu barria sortzea. Estatu hori “Nazio Askotako Estatu” (Estatu plurinazionala) da, aurreko estatu errepublikar-koloniala gaindituko duena, jatorrizko herriak nazio lege hartzen dituen non horiek bere lurraldeak berreskuratuko dituzten. Orduan egitasmo hori planteatu zen, eta birtarte honetan asko aurreratu da egiteko horretan.

—Hutsetik abiatuta, ez du erraza izan behar Estatu mota hori antolatzea.

—Oso gaitza da. Orainsu Bilbon horren inguruan eztabaidatzen ibili gara; transnazionalak kanporatzea, estatu-eredua aldatzea... Denek eskatzen digute, GKE edo lankidetzaren agentziek, lehengaien herrialde ekoizle izateari uzteko; neuk esaten nien “orain, behintzat, ezin dugu”. Geure

lehentasuna oraintxe, Boliviako eskuma atzerakoiaren eta kontserbadoreenaren presioari aurre egiteaz gainera, aldaketa prozesu honi eustea da; Nazio Askotako Estatu da lehentasuna. Hainbat erakundek aurpegiratzen digute ama lurra errespetatuko dugula zin egin eta ostera petrolio ustiatzen gabiltzala...

—Garapen intentsiboaren eta Pachama-

## “Arrazoiz, lehengai extratibista-ekoizle izateari uzteko eskatzen digute; baina orain ezin dugu...”

maren (Ama Lurra) defentsaren arteko kontraesana, alegia.

—Hori da. Hori aurpegiratzen digutenean, kasu batzuetan arrazoi dute. Gu zera azaltzen ahalegintzen gara: iraultza mantendu ere egin behar da. Konstituzio barriak dio: boliviarrak herritar denek dute eskubidea ura, osasuna, hezkuntza, doan eta modu unibertsalean, edota etxebizitza izateko edo jasotzeko. Hori guztia, oinarriko ondasun edo onura horiek, eskaini ahal izateko nonbaitetik atera behar ditugu baliabideak, ez dira hutsetik sortuko. Nondik lortzen ditugun? Hain zuzen gasaren edo petrolioaren errentak berreskuratzea izanaren eskubidetik, orain horien ia gehienago Nazio Askotako Estatuak gobernatzen ditu; lehen transnazionalak, multinazionalak eroaten zituzten; orain Nazio As-

## “Jendeak babesa emon bazigun ere, ez dute iraultza euren etxeetara hel dakien luze-luze itxarongo...”

kotako Estatuak banatzen ditu, herritarrek zerbitzu horiez apurka hornituz. Errealitatea hori da, egia, hala esan nien kongresukideei ere: hala egingo ez bagenu, Gobernu honek benetan gauzak aldatuko dituela sinetsi duen jendeak ez luke hitza betetzen gabiltzala ikusiko. Hala ez dela antzemango balute zoritxarreko kostu po-

litikoak sor litezke, ez pentsa! Jendeak babesa emon zigun, baina iraultza euren etxeetara hel dakien ez dute luze-luze itxarongo! Iraultza zerbitzu, diru-sarrera hobeen, horniduren bidez heltzen da; horretarako, diru-baliabideak behar ditugu.

—Eskuma garaitu zenuten, baina zelako ahalmena antzematen diozue orain?

—Norgehiagokan indar gutxiago edo bi-

zitasun txikiagoa duela esango nuke. Joan den urtean, lehia oso gogorra izan zen; eskumetan atzerakoiaren eta kontserbadoreenakoa da, oraindik ez dute onartzen jatorrizko herritar batek goberna ditzakeela, beti sentitu dute herrialdea beraiena baino ez zela... Orain aukera hori gaitzeari, gaitzeari-edo egin die. Kontua ez da honezkero ez dabilzala azpijokoan, boliviarrak iraultzaren kontra konspiratzen jarraitzen dute, baina euren ere badakite ezin dutela eraso larregirik egin, herri mugimenduak berak adierazi dielako noraino hel daitezkeen. Evo Moralesen Gobernuaren aurka, hura botatzeko asmoz, ahalik eta gehien mobilizatu zirenean, gero eta sabotaje gehiago egin zituzten heinean, jendeak are indartsuago emon zuen bozka aldaketa prozesuaren alde: 2005ean aldeko

bozen %54gaz irabazi zuen, eta iaz %64gaz. Jende gehiagok babestu zuen aldaketa prozesua, boto bidez ere jakinarazi zuten jendeak Mugimendu Sozialistaren eta Boliviako ezkerrearen proposamena euren baino sendoagoa zela; oso argi gainera.

—Ordezkaritza aldetik, baita prozesuan ere, zein da andrazkoen partehartzea?

—Alde oso interesgarria da. Konstituzio barriak genero berdintasuna, belaunaldien arteko ekitatea e.a. sustatu beharra jasotzen du, boliviarrak gizartearen dauden ezberdinkeria mota denak ezabatzeko beharra. Horri keinu lege, Presidenteak aurtan 20 ministerioz osatutako bere kabinetea eratzeari, horien buru 10 gizonezko eta 10 emakumezko ipini ditu. Ez bakarrik

## “Ez dakigu zenbat denbora beharko dugun, baina azken helburua komunitate-sozialismora heltzea da”

Konstituzioak hala dioelako, maila guztietan berdintasunerako mekanismoak aurkitzeko beharra dagoelako baino. Beraz, Presidentearen lehen erakusgarria da 10 emakume ministro hautatzea eta ipintzea. Aurrerantzean motel joango den ikastaldia dugu; prozesu iraultzailearentzako eta herrialdearentzako estrategikoak eta oso garrantzitsuak diren ministerioen gidaritza dute (Ingurumen eta Urena, Justiziarena, Ekoizpenarena, Gardentasunarena, Kulturarena, Osasunarena e.a.) andrazko ministro horien gehienago jatorrizko herrien sindikatuetatik edo gizarte mugimenduen erakundeetatik datoz; ez dira edozein,

emakume borrokalaria dira, aldaketaren alde gizarte oinarrietan jardun dutenak, eta gaur ministerio-ardurak dituzte. Dagoen gatazka da denak dabilzala ikasten, inoiz ez direlako egon estatu-kudeaketako ezertan, horrenbestez, orain egiten ari diren lana geldotxo doa ikasten dabilzala, ikasketa prozesuan daude... Azkenean etorkizunean, jatorrizko herrien eta herri

mugimenduen euren guztiz bakarrik euren buruak gobernatzeko prest izan arte.

—Eta aurrerantzean igartzen dituzuen erronkak zeintzuk dira?

—Erronka nagusiak kontu publikoak bizkortzea da, horrek orainsu esandakoagaz lotura dauka, hau da jendea ikasten dabilzala; garai neoliberalaren eta estatu kolonialaren oinordetza diren hainbat gauza ere gainditzeko, oraindik legeak, arauak lanean gabiltzalako; Nazio Askotako Estatuaren gutxieneko oinarriak egokitu ostean, horietatik aurrera egitea da geure zerumuga. Nazio Askotako Estatuak bermatu behar ditu adostutako zerbitzuak eta

ondasunak, horiek guztiak giza eskubideak lotuta daudelako. Estatuak ziurtatu behar du ura ez dela pribatizatuko inoiz gehiago, ura giza eskubidea dela eta arduratu beharko du herritar denak urez hornitzeaz, eta modu berean osasun arloan, hezkuntzan e.a. Horiek dira gure helmuga nagusiak, eta horrez gainera, ingurumenaren aldeko elkarrekin eta erakunde ekologistakaz erabiliko dugun garapen eredu ere eztabaidatu beharko dugu. Geuk apur batean extratibistak izaten jarraituko dugula erabaki dugu, badakigu eredu hori ekoizpen industrialeko eredu dela, badakigu Planeta hondamenera eroraten dabilen eredu dela... baina momentu honetan lehentasun nagusia Nazio Askotako Estatu eratzeko da, behin Nazio Askotako Estatu sendotuta dagoenean, orduan bai gure helburutzat hartu dugu ekoizpen eredu aldatzea, eredu extratibista uztea. Ikus daitekeenez, asmo handiko erronkak dira, baina epe labur-ertainera betetzea espero dugu; gure azkeneko jomuga komunitate-sozialismora heltzea delako. Ez dakigu zenbat denbora beharko dugun, gobernu ekimen edo ekintza eta abarretan ipiniko dugun indarraren eta bizitasunaren arabera izango da; baina hori da gure azkeneko helburua. ◻

## Nazioarteari begira

—Honduras edo Ekuadorreko (elkarrizketa albistea zabaldu zen egunean egin zen) estatu-kolpeak askorentzat ALBA eta UNASUR erakundeei ere egindako “ohartarazpenak” edo erasoak dira; zer diozue? Bestalde, estatu-kolpeak antolatzeke eta gauzatzeko eskumaren eta militarren gaitasuna ikusita, Bolivian arriskurik badago?

—Lehenengo galderaren inguruan, hain zuzen ere hori da lortu gura dutena. Alde batetik, Ekuadorreko estatu-kolpe ahaleginak Latinoamerikako prozesu iraultzaileen ahultasuna agerian ipintzen du, oso ahulak dira. Bestetik, erreakzio indarrek eta aberriaren

kontrakoe, oligarkiek, erakusten du ere azpijokoan ibiltzeari ez diotela utzi; egin litekeen okerrik txikiena ere itxopen dabilzala barriro ekiteko, prozesua gertatzeko. Boliviako kasuan antzerakoa gertatzen da. Maila guztietan garaitu dugu eskuma, baina badakigu oraindik botere ekonomikoa eskumaren esku dagoela; botere politikoa gure egitea lortu dugu, baina ekonomikoa Boliviako oligarkia da oraindik; berdin gertatzen da Ekuadorren edo Hondurasen. Orduan, elkartasunaren esparruan lanean jarraitu behar dugu, aurrera doazen prozesuetan leku guztietako ezkerren artean elkarri laguntzen... Gure iraultza ezin izango da lortu ez badu

sostengatzen duten gizarte mugimendu, erakunde politiko, aldaketa prozesuetan dauden gobernu eta guztien elkatasuna eta laguntza. Horregatik dago ALBA ere, berori da dagoeneko, herrialdeen arteko eta euren politika publikoen eta abarren arteko aliantza estrategikoak lortzeko, oinarriko eta gutxieneko instituzio batasunak sortzearen beharra dagoelako adierazpen erreala. Prozesu oso gaitza da, baina modu berean zurraragaria, uste dugulako honen bitartez lortzen gabiltzala latinoamerikar lege beti amestutakoa, guztion artean aberri handia eratzeko; eta denok egingo dugu, jatorrizko herritarrek, langileek, emakumeek e.a.





MAULE, MAIATZA 2010

## “Herri ixilean”

*“Baiona bisitatu nuen behin eta Chemin de Cazenave izeneko kalera ailegatu nintzen. Une hartan Iparraldean nire abizen eta familiaren arrastoari jarraituko niola erabaki nuen”.*

Jon Cazenave argazkilaria donostiarrak, bere abizenagaz lotutako leku, subjektu eta gertaera historikoen inguruko informazio-bilketan oinarritutako proiektua garatu du.

Egitasmoaren mokadutxo bat bildu dugu Fotografia atalean;  
baina Iparraldeko ikuspegi pertsonal honi buruz gehiago jakin gura duenak,  
Algortako Torrene kaleko erakustaretoan izango du aukera urrian.

Argazkiak: **Jon Cazenave**



ITSASU, APIRILA 2010





AHUSKI, MAIATZA 2010



AINHOA, ABRILA 2010



KANBO, EKAINA 2010



ALDUDE, EKAINA 2010





BEARTZUN, EKAINA 2010



GARAZI, EKAINA 2010



DONOSTIA, MAIATZA 2010



HENDIA, EKAINA 2010





ALDUDE, AHIRILA 2010



LARRAINE, AHIRILA 2010



LIGI, MARTXOA 2010



LARRAINE, AHIRILA 2010



[zinema]

## Denboraldi hasiera

**Leioan** ekin diote, eta **Sopela eta Getxon** laster hasiko dira zine eskaintzak



*El escritor* filmeko irudi bat (Roman Polanski)

**Udagoienagaz** batera hurreratu ohi dira sarriago zaletuak zinemetako epeltasunera. Hala, kultur programatzaileek ere orduan ekiten diote zine eskaintzen denboraldiari. Eskualdean badira hantzena zine forumak, zine-klubak, edota umeei begirako eskaintzak; berbarako Getxo, Leioa edota Sopelan.

Leioan dagoeneko hasiera emon diote zine-denboraldiari eta haurren, film komertzialen zein Perseo zineforumaren eskaintza hasi da pantailan istorioak irudikatzen. Urte amaiera bitartean Auditoriumen emango diren filmak hurrengo egunetan izango dira: urriak 30-31, azaroak 1, 6-7-8, eta 27-28-29, eta abenduak 4-5-6. Horrez gainera, Perseo zineforumak (martitzenetan, 20:00etan) martxan duen Erresuma Batua zikloaren barruko film bi ikusteko aukera dago oraindik: *Buscando a Eric* (hilak 19) eta *London River* (hilak 26). Azaroan Kanada, Suedia eta Txekiar Errepublikako zineari begirako zikloa antolatu dute, lan hauek ikusi ahalko dira: *Las invasiones*

*barbaras* (azaroak 2), *La edad de la ignorancia* (azaroak 9), *El jefe de todo esto* (hilak 16), *Yo servi al Rey de Inglaterra* (hilak 23) eta *Sueños de juventud* (hilak 30).

Aretako Andres Isasi Musika Eskolan lekutu diren Getxoko Kultur Etxeak antolatutako zine emanaldietan hasten lehenengoa Zine-kluba izango da, hilaren 29an *El Escritor* (Roman Polanski) fil-

**«Leioan zineforuma martitzenetan; Getxon Zinekluba barikuetan eta Sopelan zapatu-domekatan»**

magaz. Igandeko Haur Zinea eskaintzak hileko azkeneko domekan (17:00) ekingo dio denboraldiari *Toy Story* pelikulagaz.

Sopelako kultur etxe barriak ere zine eskaintza egingo du, "familiei" begirakoa izango da, eta emanaldiak domeka ala zapatuetan izango dira. Halaber, herriko Itzartu emakume taldeak bultzatuta, hamabostero, egunetan, "genero ikuspegitik" zine emanaldiak ere antolatu dituzte. ○

**Josu Doncel** > kantugilea, bakarlaria

"Jendeak esaten dit, ondo pasarazten diedala, baina ondoen pasatzen duena neu naizela! Bat nator!"



Azaroaren 13an Sopelan (Iberre taberna) joko du; eta Leioan ere hitzartuta du emanaldi bat. Harremanetarako: 616 960 257. Informazio gehiago: [myspace.com/josudoncel](http://myspace.com/josudoncel)

Askok eta askok ezagutuko dute dagoeneko Josu Doncel (Algorta, 1985), han-hemen kontzertu andana eskaini ditu-eta. —2008an hasi zenuen bakarlari ibilbidea. —Betidanik jo dut gitarra, baina taldean jardutea ez dut lar gogoko, agian ez dudalako aurkitu niretzako "aproposa" zen talderik. Behin otu zitzaidan: "zergatik ez lagun denak batu, lagun baten tabernan?" Egun batean bategaz jo eta bestean besteagaz jardun ordez, egun berean denak bildu eta... hala. Hasieran bertsiok bakarrik jotzen nituen, batez ere irratan askotan en-

tzun eta jendeak ezagutzen zituenak... Orain neurek ere jotzen ditut. Hasieran gaztelarazko letrak urten zitzaizkidan, ez dakit arazoia, euskaraz ez dudalako arazorik; orain idazten hasi eta urtetan dena, gaztelaraz, euskaraz... Egia esan, letra baino lehenago melodia sortzen dut. Oso gustura nabil; gero eta kontzertu gehiago dut... Hastea ez da erraza; baina apurka... —Eta urte hasieran *Inundado de Ilusion y Sueños* maketa kaleratu duzu.

—Lau abesti dira; maketak begiratzen hasi eta gehienek 5 dituzte, ala 3; lau sartzea

erabaki nuen, ukitu berezia emotearren edo. 'Inundado', horren gaineko kanta egin nuelako, ezagunena ei da; Hezetasan auzoan bizi naiz, 2008an uriolen kalte-ondorio denak jasan nituen. Ez nuen inori ezer aurpegiatzeko asmoz sortu, ez da nire estiloa, aldarrikapenerako badira beste batzuk; gitarra jo eta jendeak ondo pasadezan saiatzen naiz. Benetako historiak

**«Neure estiloa kantagile klasikoetatik oso urrun ikusten dut»**

kantatzen ditut, asmakizun gitxiko pertsona naiz! 'Ilusion', hori sentiarazten didalako abiatzen ari den bide honek; gaztea naiz, badut denbora eta gogotsu nabil! Baliabide eta aukera gitxi eduki arren! Eta 'Sueños', gitarra jotzean ametsetan nagoela sentitzen dudalako... Orain lau urte hau niretzat ametsa zen!

—Zein estilotik hur dakusazu zure lana? —Zeinetik urrun esan ahal dizut: kantagile klasikoetatik, Laboa, Lete, Lertxundi-rengandik oso urrun ikusten dut neure burua; nahiko lasaiak iruditzen zaizkit. Nik jai-giroak, melodia dantzagarriak... ditut gogoko; hori da eskaintzen saiatzen naizena, lortzen dudana... Jendeak esaten dit, oso ondo pasarazten diedala, baina ondoen pasatzen duena ni naizela; bat nator! ○

## diskoak

**Songs from the road**  
Leonard Cohen  
Elkar




Zuzeneko CD-DVDa duzu *Songs from the road*. Cohenek duela bi urteko biran grabatu zituen bere abestietatik hamabi ezagunenak. Diotenez, "bere karrerako kontzerturik onenak" eskaini zituen, munduko aretorik ospetsuenetan. Bira garrantzitsua izan zen, 15 urteren buruan egindako lehena izan zelako.

**B aldeko kantuak**  
Txuma Murugarren  
Gaztelupeko Hotzak



"B aldeak beti gustatu izan zaizkit gehiago A aldeak baino, arrakastaren azpian ahaztuta gelditzen diren kantu minberati eta ahulak; nire kantuak B aldeko abestiek zerkusua dute", laburbildu du Murugarrenek lan hau. Kantu arantzadunak dira, bihotz bakoak, zitalak, inork maite ez dituenak, hondamenditiek erreskatatu dituenak.

**Arnasak**  
Mendizabal-Furundarena  
Elkar



Bi tresna eta tresnajeraren arteko uztarketa esanguratsua "modu zotil bezain eder eta adierazkorrean" islatu gura izan dute Arnasak lan honetan Aitor Furundarenak eta Garikoitz Mendizabalek: eskusoinua eta txistua. Abesti alaiak eta dantzagarriak dakartzate, "sen herrikoierakargarria eta unibertala airean barreiatuz".



**BETIKO**

IKASTOLA

**GURE GAURKO  
ETA BETIKO  
IKASTOLA**

• 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

• Ingelera 4 urteik. Frantsesa DBHn.

• Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

• Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

• Leioako Ikastolen Elkartearen ikastola bakarra.



Ikastolen Elkarte

Deitu eta informa zaitez  
Tlf: 94 464 23 64  
94 464 33 07  
Fax: 94 464 22 05  
Helbidea: Artatza auzoa 84  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

**GARRK!**



**GIZONENTZAKO  
MODA**

Telletxe 5  
ALGORTA  
Tf. 94 460 70 84





Getxoko Andra Mari  
Gasolindegia

Txartel hau  
aurkezten baduzu  
**%50eko**  
deskontua  
izango duzu zure  
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean  
Tf. 94 430 15 00

(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki  
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER  
AGENTZIA ORZALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Tellebia 1 Tf. 94 480 27 41

Algorta

[liburuak]

## Gure mitologia ezagutzeko *Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik* liburua eta DVDa plazan

**Sestao eta Armintzako** Adarmendi elkarteak eta Irurtzango Orritz elkarteak urte eta erdiz garatutako "Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik" egitasmoa liburu eta DVDan gauzatu da. Orain lau urte armintzartu zen Aritzta Bergarak (Sestao, 1972) zuzendu du ekimena, Daniel Castellok marraztu ditu irudiak eta Yannick Vergarak (narratzailea), Kiko Jauregik (ahotsa), Orritz elkarteko panpinak eta Sakanako lagunek parte hartu dute.

Bergarak hainbat euskal musika tresna eskolan ematen 20 urte baino gehiago daroaz eta ehunka berbaldi eskaini ditu herri musikaren eta euskal mitologiaren

**«Aritzta Bergarak zuzendu du Adarmendi eta Orritz elkarten lana»**

ganean. *Mitologika* hiru liburu bildumaren idazlea da, eta berarengana jo zuten Orritz elkartekoek liburuotan oinarritutako panpinak egiteko. Hortik aurrera elkarlanean jardun dute eta horren azkeneko emaitza da argitaratu barri den *Euskal Herriko Mitologia. Jentilen Aztarnen Atzetik* lana. Alde batetik, 144 orrik osatutako liburua (25 euro) dago, eta 35 pertsonaia mitologikoren (Tartalo,



Castellok marraztutako Lamia

Mari, Lamiak, Gizotso, Galtzagorri, Sugoia, Akerbeltz e.a.) gaineko aurkezpena edota kondaira zaharrak jasotzen ditu. Bestetik, DVD elkarreragilea (15 euro), non 3 orduz 25 pertsonaiaren bideoak ikusi edota kondairak entzun daitezkeen.

Ikastetxe, euskaltegi edo euskal mitologian sakondu gura duen edozeini zuzendutako 5.000 ale ipiniko dituzte salgai (Berria egunkariaren bidez, beheko webgunearen bitartez edo hainbat liburutegietan), eta liburua eta DVDa, biak, erosiz gero azkeneko prezioa 35 eurokoa da. ○

**Informazio gehiago:**  
[www.euskalherrikomitologia.com](http://www.euskalherrikomitologia.com)  
[www.adarmendi.org](http://www.adarmendi.org)

liburuak



**Nemesioren trikitixa**  
Pako Aristi/Javi Kintana  
Elkar

Galdera askori erantzun behar izango dio Nemesiok. Zergatik diote trikitixa ez dela Euskal Herrikoa? Zergatik daude zientzako trikitixa armairuetan gordeta? Bost eta bederatzita urte bitarteko umeei zuzenduta dago Aristiren azken lana. Trikitixa zale txikiarentzat, opari bikaina.



**Kaixo!...**  
Garikoitz Knörr  
Txertoa

Kaixo! English-Basque conversation guide eta Kaixo! Manuel de conversation français-euskara argitaratu barri ditu Txertoa argitaletxeak. Knörrek, euskara edozein mailatan ikasten dagoen anglofono eta frankofonoentzako tresna sortu du.

[kirola]

**Jose Felix Hormaetxe** > Funanbulismoan aritua  
"Azken jomuga Lost Arrow-ra joatea zen, hori delako alturako funanbulismoaren sorlekua"



Jose Felix Hormaetxe slackline praktikatzen Yosemite

**Irristaketan** ere ibili eta ezaguna bada ere, azken balentria funanbulismoko *slackline* motan egin du Hormaetxek (Algorta, 1981). —Yosemite *slackline*-a egin duzue!

—Inigo Larrañaga "Txirrita" mutrikuarra, Aitor Garitaonandia durangarra eta hirurok, beste batzuk ere, joan ginen abuztu amaiera irail hasieran. 3-4 urte daroagu kontu honegan, Txirritak-eta gehiago; nylonezko zinta lau baten ganean jardutean datza, zintak bote egiten du eta pendulua legez mugitzen da, kablea ez bezala. Yosemite hasi ziren hori praktikatzen. Aipatutakoak eskalada munduko jendea dira eta oreka hobetzeko ariketa ona ei delako egiten dute; horiek egiten zutelako hasi nintzen ni ere. Behin Ereñoko harrobi ohietan ahaleginduko zirela eta joateko esan zidan Txirritak. Egun hartan ez genituen 4 pauso ere emon! Haluzinatzerainoko beldurra pasa genuen, baina esperientzia itzela! Hurrengo urtean barriro ekin, eta lortu genuen. Hirugarrenez ere egin genuen, iaz, ETB3ko KTX saiurako dokumentala grabatzeko; Arrigunaga eta Portu Zaharrean ere grabatu genituen irudiak. Kontu horren eta hainbeste entrenamenduren azken jomuga *Lost Arrow*-ra (AEB) joatea zen, hori delako alturako funanbulismoaren sorlekua. Han, ur-jauzia-

ren horman, ezaguna den orratza dago, eta alderik alde soka-lasaia, *slackline*-a, ipintzen da. Zinta haranetik 900 metroko altuerara dago, baina 100 metrora mendi-lepo bat dago. Horra heltzeko modu bi dago: bata, 3 eguneko eskalada eginez; bestea, paretaren beste aldetik igo, 100 m. rappelean jaitsi eta azken 2-3 luzeak eskalatzean datza, soka aldean daroazula, guk hala egin dugu. Segurtasun-sokagaz egin dugu, baina hori barik ere egiten dute, maila mental gorenekoek! —Lerro patinetan Guinness marka duzu.

**«Ipurtarina naiz,  
"jostailu" "arriskutsu"  
denak ditut gogoko!»**

—Ahaztuta ia, ez nabilenez! Tebistatik deitu ziguten ea saiatuko ginen arrapala-jauzi altuena egiten; lortu genuen, uste baino errazago! Oraindik gurea da; txorakeria, era horretan egiten beste inor ez delako saiatu, baina badira altuago jauzi egiten dutenak.

—Eta orain zer?

—Nire "jostailuakaz" segitu; izotzean eskalatu, zehar-eskia... Parapenteagaz hasi naiz, hormak eskalatu eta hegaz jauzi gura nuke! Ipurtarina naiz, jostailu "arriskutsu" denak ditut gogoko! Ez dakit beteko dugun, baina itsasadarra *slackline*agaz gurutzatzea... ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa  
Kizol  
moda



**350 M<sup>2</sup>**  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, S.L.



• MARKA GUZTIK  
• 24 OROKUTAN ERANTZUNA  
• 3 HILABETIKO GARANTIA  
• 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN  
• BYTESUA DEMA  
Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA



**Jon Cazenave** > argazkilaria

## “Ahalegin handia egin nuen inspirazioa bilatzen eta euskal izaera berreraikitzen”

**Getxophoto argazki jaialdia bukatu da, baina azken sorpresa bat utzi du: Jon Cazenave donostiarraren erakusketa. Udalaren eta EKE Euskal Kultur Erakundearen enkarguz egin dute, *Iparra galdu gabe* jardunaldien baitan; azaroaren 14ra arte dago ikusgai.**

—Herri ixilean erakusketa dakarzu Getxora, zure familiaren arrastoari jarraituz sortutako argazki sorta.

—Getxophoto jaialdiko lagunek eta EKEk proposatu zidaten, *Iparra galdu gabe* jardunaldien baitan txertatzeko; Ipar Euskal Herria gerturatzeko egin ohi dituzte jardunaldiok. Egitasmo berritzailea nahi zuten eta nire familiaren arrastoa arakatzea proposatu nien. Cazenave dut abizena eta gaskoia da, Biarno aldekoa. Hortik abiatuz berregin dut arbasoek egindako bidea, Biarnoko Cazenave auzotik itsasora; Zuberoatik hamar kilometrorra dago. Iparralde osoan ibli naiz inspirazio bila, cazenavetarren bila. Euren inguruan eraiki dut erakusketa, baina hori aitzakia hutsa izan da nire imaginarioa eta bidaia egiteko.

—Zergatik? Zer ikus daiteke argazkietan?

—Bidaia intimoa da, onirikoa. Ahal-egina egin dut nire herria arrotz ikusteko. Argazki klasikoak dira, baina gaira hurbiltzen naiz era nahiko berritzailean, argazkilaritza erabiltzen baitut nire burua eraikitzeko: ahalegin handia egin nuen inspirazioa bilatzen eta euskal izaera berreraikitzen. Horrela atera da argazki sorta nahiko intimoa; bertan ematen dut nire buruaren irudi bat, baina iparraldea erabiliz.



Jon Cazenavek utzitako irudia

—Egoeraren araberakoa izan da ala beti lan egiten duzu horrela?

—Bai, nire lan egiteko era da. Argazkilaria naiz eta egin dut erreportaje bat euskaldunei buruz, eta erabili dut jakiteko ni eta nire euskal nortasun hori zer den. Argazkien bidez galderak egiten ditut, gutxitan lortzen ditut erantzunak,

—Zenbat denbora eman duzu argazkiak egiten?

—Urtarrilean hasi nintzen eta ekainean bukatu. Hasieran dokumentazioa bildu nuen, prozesu zehatza izan zen, lanaren muina.

—Pozik emaitzagaz?

—Bai. Halere, nahiko zaila da lortzea

**“Argazkien bidez galderak egiten ditut, gutxitan lortzen ditut erantzunak, eta nire jarrera eraikitzen dut”**

eta nire jarrera eraikitzen dut. Iparraldean oinarritzakoa izan da hau, Euskal Herria da, baina euskal nortasuna nahiko zanpatua dago bertan. Nire buruari galdetu diot zanpaketa hori logikoa den edo ez, eta iritzi bat eraikitzeko oso garrantzitsuak izan dira dokumentazioa, han denbora asko igarotzea eta arazoak kanpotik ikustea.

ikusleek zuk nahi duzuna ikustea. Nire baitan daukadan guztia jasotzen dute argazkiek, baina herri bat ere barnebiltzen dute. Ez dira argazki errazak: intimoak dira, galderak planteatzen dituzte, zalantzak plazaratu, eta abar. Jendeari galderok ikusarazi nahi dizkiot, eta hori ez da batere erraza. ○

**Fredi Paia**

## Pastore kiputzek

**Trashumantzia** da artzainak urtaro aldaketetan euren ardientzako bedarleku bila lurralde batetik bestera joatea. Gitxienez Burdin Aroko, orain dala milaka urtetako ohiturea dala dinoe Barandiaranen moduko adituek. Erdi Aroko testuengatik badakigu, ganera, trashumantzia horreek egonkorrak izan dirala. Hau da, artzainek ibilbide bera egin izan dabe urtero belaunaldiz belaunaldi. Milaka urtetan mantendu eta orain hamarkada gitxi desagertu dan trashumantzia horreetako bat Uribe Kostara heltzen zan neguko solstizioa igaro eta egun gitxitara. Uribe Kosta dinodanean, Erandiotik Jatabera doan azpieuskalki bereko lurraldearen ganean nabil. Gure eskualdeko herri guztietan akordaten dira edadekoak pastore kiputzen urteroko etorreragaz. Getxon, ganera, Galdames inguruko artzainen trashumantziagaz topo egiten eben pastore kiputzek. Horrek sano datu kuriosoak batzen lagundu deust; izan bere, lekukoen arabera, galdamestarrek eta gipuzkoarrek euren arteko tratuak egiten ebezan. Gipuzkoarrek ez ekien erderarik eta Galdamesen aspaldi galdu ei zan euskerea. Baina baleiteke, trashumantziari esker, Orbaizeta moduko herrietan jazo dan lez, Galdamesko artzainek euskereari eutsi izana garaitiko herrikideek ahaztu eta gero bere.

Gipuzkoako Goierriatik etorten ziran artzainak gure eskualdera. Ataundarrak Lemoiz eta Jatabera, zegamarrak Barrika, Plentzia, Getxo eta Urdulizera, Zaldibi eta gainzatarren barri bere euki dot Berango eta Sopelan... Bertan ezkondu ziran eurretariako asko, eta handia da gure eskualdean dagoan abizen goierriarren kopurua: Atxutegi, Otegi, Gurrutxaga, Zarraga... Ez daigun ahaztu, esaterako, Plentziako Isuskizako biztanlerik gehienak, Txipioetakoak legez, gipuzkoar jatorrikoak zirala. Plentziako itsasadarreko kanalizazio beharretara etorritakoak, barriz bere Gipuzkoako goierriatik. Ikazgin modura behar egiten eben eurretariako



Barrika

askok behin Uribe Kostara ezkondu eta gero. Orain urte bi, Zegamatik gure eskualdera akabuko trashumantzia egin eban artzaina ezagutu eta alkarrizketatzeko zortea euki

**«Etapak bakoitzean atsedean hartzeko lekua antxinatik eukien lotuta»**

neban. Martin Etxezarreta dauko izena eta larogehi urteak igarota daukoz.

Berak kontau eustan zelari ardiak udan Urbiako landetan eukiten ebezan, Aizkorripean. Irailaren amaieran, udagoieneko ekinozioan Zegamara jaisten ebezan. Bertan egoten ziran gabon egunera arte. Baina hortik aurrera ezinezkoa egiten jaken ardiei jaten emotea, edurrak bedarleku danak estalduten ebazan eta. Orduan gure eskualderako bidea hartzen eben, itsas baztarreko aro goxoagoaren bila. Martinek ez ekian noztik egiten eban bere familiak trashumantzia, edo UKn nahi Goierriin dinogun lez, martxea. Soilik ekian bere birraitaren sasoian egiten zala.

Bost egun behar izaten ebezan gurera ailegateko. Lehenengo etapan Zegamatik Elorriora egiten eben, bigarrenan Elorriotik Durangalde eta Busturialdearen arteko muga egiten dauan Muniketan egiten eben lo. Hirugarren egunean Muxikaraino heltzen ziran, laugarrenean Fruizen hartzen eben deskantsu eta bosgarrenean helmugara heltzen ziran, Barrikako Ganbe aldea-etxera. Narruzko abarkakaz egiten eben bidea, Martinek bederatzirte egiten eban lehenengoz eta oinak odoletan eukazala heldu zan Barrikara.

Etapak bakoitzean atsedean hartzeko lekua antxinatik eukien lotuta. Belaunaldiz belaunaldi etxe bardinetan hartzen eben deskantsu. Eta abisatu ez arren bere, euren begira egoten ziran etxeetakoak behin abenduaren edo ilulearen 24a igaro eta gero. Ezin izan dodaz bost etxeak aztertu, baina eurretariako bi, sikeran, dorre-etxeak izanekoak dira. Ohitura honen antxinasunaren ganeko beste datu bitxi bat.

Uribe Kostan udabarriko ekinoziora arte lotzen ziran, martiaren 19tik 24ra egiten eben ospa Urbiako landetara. ○



[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.

 <p>Portu Zaharra kalea 35 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia) Tel. 94 460 20 33 portuzaharra@portuzaharra.com www.portuzaharra.com</p>	 <p>Eguneko menua      <b>Jatetxea</b>      Karta Asteburuko menua           Oilasko erretegia</p> <p>Sarriena aztoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com</p>	
 <p>Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>	
<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini geugaz harremanetan:</p> <p><b>94 491 13 37</b> <b>publiuk@aldizkaria.biz</b></p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>
<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>
<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>	<p>[zure iragarkia hemen]</p>

[gaurko aukera]

## La Triangu

Guztiontzako giroa, olatu artean



La Trianguko lagunak

**Olatu giroan** sortu zen La Triangu Sopelako Arriatera hondartzan. Alberto Fernandez "Tito" hutsik zegoen eraikinarri bizia emateaz arduratu zen 1996an. 14 urte pasa diren arren, hasierako giro freskoa mantentzen du: "Guztiontzako toki da, musika estilo ezberdinak eskaintzen saiatzen gara; leku dibertigarria izatea bilatzen dugu batez ere". Lantaldeak, giro beroa sortzen laguntzen du: "Zerbitzariak berdintsuak izan dira hasieratik, ezagunak ingurukoentzat; bizitza erdia daroagu elkarregaz". Sukaldea oraintxe barritu dute eta asteburuetan anoak ematen hasiko dira, pintxoakaz batera.

Gune zabala dute Arriateran; beheko aldean, lagunartean jai pribatuak egiteko aloka daitekeen gunea dago. Surf Eskola

ere badute eta Getxo Surf elkarteko ki-deek euren lokala dute bertan: "Taberna baino askoz gehiago da La Triangu; surfa egunerokoa da guretzat".

Etenbako barrikuntza dinamikan murgilduta daude: "Terrazak eta sukaldea izan da azkena; orain, beheko barragaz hasiko gara. Urtero barrikuntzaren bat egiten dugu". Urruneko lagunak ere hurbiltzen dira hondartza inguruko giroak deituta: "Betiko erritmoa eta energia mantentzen saiatzen gara eta zerbait barria eskaintzen dugu; hor dago sekretua".

Eguenetan kontzertuen txanda da; urriaren 21ean "Calcetines y cachetes" taldea egongo da eta 28an "La Janis".

**Arriatera 83, SOPELANA**  
**Tf. 94 676 34 07**



**ARTAZA ETXEA**  
**JATETXEA**

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkargaz

Erreserbak: 94 463 03 92  
Artaza Etxea Ezkialde, Gobeia erailinaren sarreran • LEIOA



**JUAN-MARI**

Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25  
**AREETA**



**KONTXI**  
**ZUAZUBISKAR**

**URDAITEGIXA**

Adituak gara, Urdaiatzpiko Iberiko, Pate eta Gaztaitan!!

Alangobarrí 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93



**GOZOLABEA**  
**GALDARETXE**

- Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
- Telletxe 13, ALGORTA Tf. 94 491 51 44
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 52 58

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

**HARPIDETZA** > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak..... Kalea/zenb.....

Herria..... e-mail..... Telefonoa.....

Urtero  20 euro  30 euro  50 euro  beste kopuru bat ..... euro

Kontu zenbakia (20 digito)

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

**UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37



**ITXASGANE**  
prentsa • aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Auziluzo s.p. • T.E.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**María Jesús**  
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA  
Alangoberri 10  
Tf. 94 491 08 21  
ALGORTA **HARTU TXANDA**

**GOIZEAN**  
"Gozoki eta prentsa, gubi denik ez pentsa"  
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Liozmeriak  
Ordua Mendatea 1      Telletxe 13  
Tf. 94 430 22 13      Tf. 94 460 02 88  
GETXO      ALGORTA

**KOSKA**  
irratia 108 fm

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Aizu! Baduzu garaia lagunei deitzeko, azkenaldian abandonatuta daukazazu eta. Telefono txartela lapurtu dizutela? Eskuitzak bidaltzek ere balioko luke...

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Iji eta aja, pozez zorutzen zabilta, pinpilinpauza ematen duzu kalean hegaka. Sorginen batek al dauka horren errua? Segi bada saltoka eta dantza, aprobetxa unea.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Mendira joango zara ondoak biltzera. Baina etxera iritsi eta bat ere ez da izango jatekoa, zizei buruz ezer ez dakizu eta! Hurrengoan har egizu liburuxka, ez zara-eta izango orain baino leloago.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Baina zer zabilta bainujantzia eta pamelajantzita? Aspaldi bukatu zen hondartzarako sasoi. Joan zaitzez zerbait gehiago jantzer horzak akabatu aurretik, faborez.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Norbaitek gutuna bidaliko dizu, kate horietako bat. Ez duzu erantzungo, ez diozu jaramonik egingo. Eta ez da ezer gertatuko, gutun horiek tontakaria galanta dira eta!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Arropa denda dotorea zabalduko dizute bulego aurrean, baina txiroa zara eta ezingo duzu erosi. Galde egiozu dendariari, agian deskonturen bat egingo dizu.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Erretzeari uztea oso erraza da, zuk askotan utzi diozu. Araza da oraindik errazago dela barriro haseta... Baina lasai, hurrengo izango da behinbetikoa, laster tabernetan ere ezingo duzu-eta erre.

LASTOA




(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Herriko waterpolo taldeko bazkide egin zara eta partida guztiak ikustera eta taldea animatzera joaten zara, baina nondik ateratu duzu ideia hori? Uger egiten ez dakizu eta!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)  
Dagoeneko azterketak prestatzen zabilta, zu bai ikasle fina! A, bai, noski! Lazkoak gaintu barik daukazula oraindik, ai ene! Beno, lasai ibili, guztioi gertatu zaigu noiz edo noiz.

META



(Irailak 17 urriak 16)  
Zure urtebetetze merienda egingo duzu egunotan: patata tortilla, pintxoak, edana, gusanitoak, tarta, e.a. Pozarren egongo zara, bada, aprobetxa egizu, zure eguna da-eta.

HAZIA




(Urriak 17 azaroak 15)  
Festarik festa zabilta, udako jaiak Santo Tomas egunagaz lotzen baitakizu. Primeran pasako duzu hilabetea, Euskal Herrian beti bada jairik, non edo non. Bestela, "beti izango duzu: Bilbao".

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Igeriketa, lasterka, patinetan ibili zein bizikletan, berdin dizu. Kirola egiteko erabaki sendoa hartu duzu eta ez dago geldituko zaituenik. Parapentean hegan egitea probatu al duzu dagoeneko?



**NORA** EUSKAL HERRIA

Bideak zabalduko dizkigu gure lurraldeak miatzeko eta ezagutzeko.

**Eskuratu KIOSKOAN:** Hilabetero 2,5€ ordainduta BERRIA egunkariarekin batera


**ETXEAN:** Harpidedun eginda, hilabetero etxean urtean 24€ ordainduta. Kioskoan baina %20 merkeago.

**Harpidetza egiteko:**  
TELEFONOZ: 943 30 35 54  
POSTA ELEKTRONIKOZ: harpidetza@nora.aldizkaria.info  
WEBGUNEAZ: www.nora-aldizkaria.info



## IRUDI GURUTZATUAK

Irudi bakoitzaren izena laukietan idatzi ondoren, beste izen bat azalduko zaizu kolorezko laukietan. Goi-ekerraldeko zenbakiei segi eta dagokion irudia agertuko da.



## ez horren gaztetxoak &lt; bilatu eta irabazi &gt; gaztetxoak

Zein herrialdetakoa da Berbetaneko elkarrizketatua ?

> Aurrekoaren erantzuna: GETXOPHOTO

> Irabazlea: **Itsaso Urkiri\***

\*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Zein ibairen ibilbidea ikus daiteke "Albuma" atalean?

- **Bidasoa**
- **Gobela**
- **Ebro**

> Aurrekoaren erantzuna: UK

> Irabazlea: **Ane Barrena\***

\*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

**Oinutsik**  
kontsulta podologikoa

Zubigane 4, Sopelana  
Tf. 94 404 74 20  
oinutsik@euskalnet.net



SARIA

**La Gusana**  
liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta  
Tf. 94 491 14 12

lagusana

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



UDONDO TABERNAK UITZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

## LEIOZTARRAK ARRATEN, 1963

**Guziok leioztartzat hartu ditugu** izenbururako, baina Udondokoak direnak udondotarrak sentitzen dira harrotasunez. Arratera egun ona pasatzeko asmoz abiatu zen laguntalde hau eta ikus daitekeenez lortu ere lortu zuten. Beranduago etorriko zitzaizkion talde honi gertaerak: zoritxarreko bi eta zorioneko bat. Handik sei urtera, 1969-10-29, argazkiko Manolin Muruetaren senitartekoa, Josu Murueta, hil zuten manifestazio batean. Hamar urte beranduago, lehen udal hauteskunde demokratikoetan, 1979-04-03, taldeko txistularia, Txomin Aresti, EAJkoa, Leioako alkate aukeratu zuten. Baina orduko demokrazia..., zoritxarrez GAL bizi-bizirik zegoen eta laguntalde honetako Eugenio Gutierrez "Tigre", errefuxiatua, hil zuten 1984-02-25 Zuberoako Iduze-Mendi herriko baserri batean euskara ikasten zegoela. ○

**Atzekoak:** Txomin Aresti (txistularia, Larrakoetxe baserrikoa, GB), Alejandro Mezo (GB), Juan Luis Perello (Mendibile etxekoa), Ignacio Ayo, Joakin Etxebarria (Bistalegre auzokoa), Eugenio Gutierrez "Tigre" (GB), Tomas Loza (Elxalde etxebizitza multzokoa), Jose Mari Larrondo (Tomasen atzekoa, Sertutxene baserrikoa).

**Aurrekoak:** Jose Antonio Ugarte (GB, Mendibile baserrikoa, egun Mendibile Jauregia, Bizkaiko Txakolinaren Museoa), Juan Pedro Etxebarria "Garrote" (Zubiatur baserrikoa), Manolo Cabrera, Vicente Samaniego (Manoloren atzekoa), Manolin Murueta (Rekalde baserrikoa), Floren Landa (Atxabaltas baserrikoa).



**DANI ARIZALA** > irrati esataria

# “Ez da inportanteena zer, non edo noiz, norekin baizik”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **EITB**



**Defini egizu zeure burua berba bitan.**

Nahiago dut esatea nolakoa gustuko nukeen izatea: hutsunez, mugaz eta bertutez osatutako laguna.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

*Memorias de Afrika* filma oso gustuko dut, hegazkin horretan hegan egitea izugarria litzateke.

**Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?**

Batzuetan Olentzero izan nahi nuke, ilusioz betetako pertsona da.

**Txikitari zer izan gura zenuen?**

Kooperantea eta irakaslea, eta atzerrira joatea, Ertamerikara batik bat.

**Zerk ematen dizu beldurra?**

Aukeratu ez dudak bakardadean geratzea.

**Errepikatuko zenukeen bidaiarik badago?**

Hiru esango ditut: La Habanara, Erromara eta saharar errefuxiatuen zelaietara egindakoak.

**Animalia izango bazina zer izango zinateke? Zergatik?**

Agian txakurra, etxean eduki izan ditut, asko maite izan ditugu. Berainganako sortzen den harremana dela eta.

**Zer barik ezin zaitezke bizi?**

Lagunik barik.

**Eguna ala gaua?**

Biak. Ez da inportanteena zer, non edo noiz, norekin baizik.

**Parrandarik politenak non?**

Adunan eta saharar errefuxiatuen zelaietan, parranda oso berezkoak eta naturalak direlako.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?**

Ernio mendiko gailurra. Bertatik ikus daitezke mendiak, bailarak, itsasoa, barnealdea, Bizkaia aldea, e.a. Toki oso polita eta magikoa da. ○

**LABURREAN**— Ia 25 urte daroa Dani Arizalak (Andoain, 1966) ezberdin bizi direnak, ezberdin pentsatzen dutenak eta ezberdin sentitzen dutenen ahotsak plazaratzen, irratian gehienetan, baina telebistan ere baten batean. Gaur egun *Ilargipean* saioa aurkezten du gauero Euskadi Irratian, baina berez magisteritza ikasi zuen Arizalak; txikitako guraria bete barik dauka, ordea. Jende asko ezagutu du mikrofonoaz bestaldera, baina oraingoan bera izan da *Beste gu*, itsasoko olatu guztiak bardinak ez direlako...

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gozatu euskaraz

mobiletik euskaraz

Nor nahi goazela. Nor nahi gaudela. Gure jendearekin. Gure iritzia adierazi nahi dugunean, geure erara. Euskara gure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa dugu. Lagunen artean, gure giroan, gure artean euskaraz.



Urriak 13 > Azaroak 14

# Iparra galdu gabe!



URRIAK 13 > AZAROAK 14

Torrono erakusketa aretoan

**“Herri ixilean”** Jon Cazenave  
Argazki erakusketa / *Exposición de fotos*  
(21ean bisita gidatua Jon Cazenaverekin)

URRIAK 22

Torrono erakusketa aretoan

**“Cazenave” txokolatea**  
Dastaketa

URRIAK 22

Tamara erakusketa aretoan

**Anje Duhalde** Kantaria  
DANIEL LANDARTI esker onez.

URRIAK 22

Algorriko kalean

**Kalejira** Uztaritzeko Txaranga

URRIAK 22

Feduras, Txarolak Villamonteko Kultur Etxean urtaren 20ra arte. 15 €

**Kantu afaria**  
HOLAKO HIRUKOTEarekin eta  
UZTARITZEKO TXARANGAarekin

URRIAK 28

Torrono erakusketa aretoan

**“Iparralde XX1”** Dokumentala  
AMETS ARZALLUS eta  
PANTXOA ETCHEGOINEkin